

# ttipi-ttapa

278. zenbakia • 2000ko maiatzak 18 • XX. urtea



Lesaka-Behobia errepidearen arazoa

## Azkeneko bi urteetan ez da deus ere aitzindu

Badira bi urte terdi kasik arazo hori geldirik dagoela, Nafarroako Gobernu eta Gipuzkoako Diputazioaren arteko harremanak hautsi zirenetik ez baita batere aitzinpausurik eman errepidearen auzian.

Joan den astean Nafarroako Parlamentuaren aitzinean agerraldia egin zuten Bortzirietako alkateek, behin-

goz aterabideak bilatze alde-  
ra konpromezu garbi bat eskatzeko.

Solasaldi horrek eragina izan zuten nonbait, hurrengo egunean bertan alkateek Palacios kontseilariaren deia hartu baitzuten bilkura batera-

Bortzirietako alkateak asteazken honetan bildu dira Palacios kontseilariarekin afera horretaz solasteko

ko hitzordua eskainiz. Laster jakinen dugu Nafarroako Gobernuak zer jokabide hartzen duen afera honen aitzinean. ➡ 4-5



Gehigarri Berezia:

Herrietako lehenbiziko bestak

Oraingoan Urdazubi eta Irurita-ko bestetako gehigarria aurkituko duzu TTIPI-TTAPAREN barrenean.

### 3 Elkarriketa:

Lotsagabe aldirikaria

Bortzirietan TTIPI-TTAPAREKIN batera banatu da ale honetan gazteentzako aldirikari berri hau. Proiektu honetan lanean aritu diren bi neska gazte elkarriketatu ditu TTIPI-TTAPAK: «Gazteek ez dugu aukera aunitz gure gustoko aldirikariak irakurtzeko» diote.



TTIPI TXARTELA: Orain txartela izateak abantaila gehiago ditu. Erosi zeurea eta erabili.





**MULTISERVICIOS  
ZMETS**

Sarrera **BERATik** da  
Alkaiagako industrialdean  
Sastrin karrika, 3.2 - 3.4  
31789 LESAKA  
Tfnoa. 948 630 537  
Fax. 948 631 443



*Zure terraza  
edo lorategia  
etxeko txoko  
goxoenetako bat  
bihurtzen  
lagunduko  
dizugu*



*Zure  
lorategiari  
bizia  
emanen  
dioten  
altzariak*



**BAZTAN**

multiservicios

Tfnoa. eta faxa: 948 58 05 06 • Mobila: 600 417 310

Santiago, 51 • ELIZONDO • "La Asturiana" ondoan

### AHOLKULARITZA ZERBITZUAK:

- **Fiskala**  
(IVA, IRPF, Sozietateak)
- **Laborala**  
(Nominak, autonomoak, altak eta bajak)
- **Juridikoa**  
(Kontratuak)
- **Kontabilitateak**

### ETXEEN SALEROSKETA:

- *Etxe eta lurren salerosketa eta alokairu zerbitzua*
- *Eskaera handiagatik, baserri, borda eta etxeak erosi nahi ditugu.*

**Baztan Multiservicios** - Zure enpresarendako aholku profesionalak

## DATUAK.....

❖ **DBH 3 maila ikasten dute gaur egun Bera eta Etxalarko bi neska hauek.**

❖ **Bortzirietan TTPI-TTAPARE-kin batera banatu den 'Lotsagabe' aldizkariaren lehen alea pres-tatu dute bertze hiru kiderekin batera. Asteazkenean egin dute aurkezpena Berako liburutegian.**

❖ **Kazetaritzan hasiberri hauek urtean lau ale argitaratzeko asmoa dute, beti ere, gazteen intereseko gaiak hartuz erreferentzia gisa: musika, kirola, sexua...**

❖ **Jon Abril eta Itziar Igoa bertarrak aritu dira koordinatzaile lanetan, eta 'Egunkaria'ko Allende Arnaitzek egin du diseinua.**

TESTUA ETA ARGAZKIA:  
ASIER GOGORTZA

✍ Trini PERUGORRIA eta Amaia AGIRRE *Lotsagabe aldizkariako bi kide*

## "Gazteok ez dugu aukera aunitzik gure gustoko aldizkariak irakurtzeko"



«Guri interesatzen zaizkigun gaiak hartuko ditugu erreferentzia bezala: musika, kirola...».

NOLA SARTU ZINETEN LOTSAGABE ALDIZKARIAN?

Guk ikasten dugun eskolan gelaz gela etorri ziren proiektuaren berri ematen, eta bieri idaztea gustatzen zaigunez, berehala animatu ginen.

EGIN DUZUEN LEHEN KAZETARI LANA DA HAU?

Eskolan ere egiten dugu aldizkari bat, *Kixkilimixki*, eta horretan ari ginen lehendik, beraz esperientzia pixka bat badugu...

ETA ZER MODUZKOA

IZAN DA ESPERIENTZIA BERRI HAU?

Aunitz gustatu zaigu taldean lan egitea. Gainera, guretzat, gazteentzat egindako aldizkari bat da, eta hori hemen faltan botatzen genuen. Gazteok ez dugu aukera aunitz gure gustoko aldizkariak irakurtzeko.

Bertzalde, aldizkari bat nola egiten den ikusi dugu, prozesu osoa ezagutu dugu.

DENA DEN, BERE ALDE TXARRAK ERE BADITU, EZ DA HALA?

Bai. Lana egiten has-

terakoan denbora gutti izaten dugu batzutan, aste bat, edo bi, eta zaila da elkarrizketak egiteko jendea harrapatzea, adibidez. Jendeak normalean ez du argazkietan ateri nahi izaten. ZERI BEGIRATZEN DIEZUE GAIK AUKERATZEKO?

Denak elkartu eta atal bakoitzean zer gai sartu erabakitzen dugu. Gero bakoitzak hartzen dugu gustoko dugun gaia, nahi baduzu baka- rrik, edo binaka...

Lehen alea ateri dugu, baina bigarreneko gaiak finkatzeko biler bat egin behar dugu oraindik. Gehienbat udari begira aukeratu- ko ditugu gaiak, hurrengo alea ekainean ateratzeko asmoa baitugu.

Printzipioz lau aldizkari ateriko ditugu urtean, eta guri interesatzen zaizkigun gaiak hartuko ditugu erreferentzia bezala: musika, kirola...

MOMENTUZ 7 LAGUNARI ZARETE, BAINAN JENDE GEHIAGORENTZAT TOKIA BADAGO, EZTA?

Bai, bai, nahi duena apuntatzen ahal da, esperientzia polita da... eta informazio gehiago nahi duenarentzat badugu helbide elektronikoa: [lotsagabe@hispavis-ta.com](mailto:lotsagabe@hispavis-ta.com).

ETORKIZUNEAN KAZETARITZAREKIN SEGITU NAHIKO ZENUKETE?

Bai, gustora. Oraindik ez gaude seguru zer egin behar dugun, baina gustatuko litzaiguke.

► **"Zaila da elkarrizketak egiteko jendea harrapatzea. Jendeak normalean ez du argazkietan ateri nahi izaten."**



## LESAKA-BEHOBIA ERREPIDEA

# Azken bi urteetan ez da deus aitzindu

*Nafarroako Gobernua eta Gipuzkoako Diputazioaren harteko harremanak hautsi zirenetik ez da batere aitzinpausurik eman Lesaka-Behobia errepidearen auzian. Joan den astean Nafarroako Parlamentuaren aitzinean agerraldia egin zuten Bortzirietako alkateek, behingoz aterabideak bilatze aldera konpromezu garbi bat eskatzeko. Solasaldi horrek eragina izan zuen, nonbait, hurrengo egunean bertan alkateek Palacios kontseilariaren deia hartu baitzuten bilkura baterako hitzordua eskainiz. Asteazken honetan bildu dira berekin.*

TESTUA: ASIER GOGORTZA

**B**eratik Behobiara dauden 9 kilometroak 2002. urterako moldatzeko asmoa erakutsi zuen Nafarroako Gobernuak duela 2 urte baino gehixeago. Hala ere, obra hoiak legealdi honetan akautzea, 2003rako, alegia, ia ezinezkoa izanen da, Gobernuak jarri zituen epeak ez baitira betetzen ari.

Parlamentuak aurkeztu zuen Errepideen Plan Orokorrak zioenez 1.000 milioi pe-

zeta gastatu behar zuten dagoeneko 2000. urtean. Hori ez da inondik ere beteko, ordea, 12 milioi bertzerik ez baitute inbertitu aurreproiektu bat eginen. Jose Luis Etxegarai Lesakako alkatearen ustez, gainera, itxura egiteko bertzerik ez dira izan 12 milioi hoiak, lehendik ere bertze aurreproiektuak izan baziren eta. «Orokorrean, Gobernua nahiko ongi segitzen ari da Parlamentuaren plan hori, bainan aurtengoz obra honetan 1.000 milioi planteatuak ziren, eta ez dira aurtengo aurrekontuetan sar-



## «Lotsagarria da eskualde honekin duten jokabidea»



Jose Ignacio Palacios Herrilan, Garraio eta Komunikabide kontseilariarekin bildu dira asteazken honetan Bortzirietako alkateak.

tu» adierazi du Etxegaraiak. Hala ere, moldaketa lanak heldu den urtean hasiko ote diren itxaropena dute Bortzirietako alkateek.

Jakina da Endarlatsa aldean ikaragarritzko tapoia sortzen dela egunero-egunero-zer erranik ez igandeetan, muga kamioientzat ireki arte-, eta istripuak ere noiznahi gertatzen direla errepidea meharra den tokietan. Banaz berte 7.800 ibilgailu igarotzen da egunero pasabide estu horretatik, hoietatik aunitz pisu eta tamaina handikoak. Belateko tunelak eta Sunbilla aldeko errepide zati berriak irekitzeak, gainera, arazoa larriago bihurtu du oraindik.

20 urte baino gehiago arazoarekin bueltaka

Ez da atzo goizekoa Nafarroa eta Gipuzkoa lotzen dituen errepide zati honen arazoa. Josu Goiak gogoratu digunez, bera 78an parlamentaria zelarik dagoeneko eskaera egin zitzaion Nafarroako Gobernuari moldaketa lanak egiteko.

Orduztik errepideak dituen bezainbertze bihurgune ezagutu ditu afera honek administrazioan. Bortzirietako alkateek beurek ongi dakitenez, errepidea Gipuzkoa eta Nafarroako administrazioaren esku egoteak ekarri ditu burukomin handienak. Endarlatsatik Behobiara doaien bide zatia Gipuzkoako eremuan egonik, bi aldeen arteko akordio baten beharra dago obrekin hasi aitzinetik.

Azken urteotan aurrerapausu ttiki batzuk eman ziren alde horretatik, eta irtenbidea ere hurbil zegoela iduri zuen. Izan ere, 97ko abenduan Gipuzkoako Diputazioa eta Nafarroako Gobernuo ordezkariek mahai baten inguruan esertzea lortu zuten Bortzirietako alkateek, eta negoziazio hoiere segida ematea hitzartu zuten hasiera batean.

Geroztik harremanak hoztu egin ziren, ordea, Sanz presidenteak Euskal Autonomi Elkartearekin erlazioa haustearan aldeko hitzak egin zituenetik. Orain, berriz, elkarriz-



**Parlamentuan izan zineten maiatzaren 9an, talde politikoaren aitzinean errepidearen arazoa esplikatzeko.**

Bai, eta denak nahiko harriturik gelditu ziren jakin zutenean bortz alkateek joan den urteko uztailetik Palacioekin biltzea eskatu arren oraindik ez genuela erantzunik jaso. Gero esplikatu genuen 20 urte baino gehiago daramagula hau eskatzen. Bertze toki batzuetan aldi berean eskatu zuten eta segidan egin zieten. Orain errepide hoiek autobide bihurtzea eskatzen ari dira dagoeneko, eta guri oraindik ez digute zaharra moldatu. Lotsagarria da eskualde honekin duten jokabidea.

Azken finean bi gauza eskatu genituen: batetik, legeal-

di honetan errepidea akautzeko konpromezu bat Nafarroako Gobernu eta Parlamentuaren aldetik, eta bertzetik, harreman pixko bat gehixeago Gobernu eta Udalen artean. **Hasiera batean obrak aurreten hastekoak ziren, ezta?**

Obra hoiek Parlamentuak onartutako Errepide Plan Orokorren barrenean zeuden, eta aurreten dagoeneko 1.000 milioi gastatu behar zuten. Ikasi dugunez, ordea, 12 milioi bertzerik ez dute gastatu aurreproiektu bat egiteko.

Horregatik gure kezka agertu genuen parlamentuan. Izan ere, Nafarroako errepideetan ibilgailu gehien ibiltzen den zatia da hau, eta moldatzen den azkena izan da. Endarlatsako zati guzi hori penagarri dago, eta guk ikusi nahi genuen ea zer konpromezu hartzen ahal zuen parlamentuak arazo honen aitzinean.

**Legealdia 2003an akautuko da, ordurako errepide berria izanen dugu?**

Hasiera batean 2002rako akautuak behar zuten planigintzaren arabera, bainan aurreten ez dutenez batere gastatu, urte bat gehiago eman diegu. Beraz, 2003. urtean akautzeko konpromezu bat eskatzen dugu.

keta hoiek berriz martxan jartzea da alkateen helburua. Jose Luis Etxegarai Lesakako alkateak adierazi digunez arazoa bazterrean ez uztea da arazo honi aterabidea bilatzeko modua. Momentuz Palacios kontseilariarekin bildu dira, eta ikusi beharko da bilera horretatik zer ondorio ateratzen duten. «Horren abudo deitu digutenez, nere ustez errannahi du guk lanean segitu behar dugula, eta guk atera behar dugula afera hau aitzine-

ra» adierazi du Etxegaraiak. Alkateen bitartekaritza garrantzitsua izan da seguraski, bi aldeen arteko erlazioak ez baitira sobera emankorrak. «Nik uste bi aldeek kaso gehiago eginen digutela guri ez elkarren artean baino» dio, «elkarren artean hasten diren aldiror politikan ez dira ententitzen eta hor dira diferentziak. Guk mugitu ezker eta arazoa bizirik edukitzeen baldin badugu pausu handiak ematen ahal ditugu». ■

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 7.100 ALE

### Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

### Internet:

<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>

### e-mail:

[ttapi-ttapa@topagunea.com](mailto:ttapi-ttapa@topagunea.com)

**Jabea:** TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.

**Presidentea:** Pello Apezetxea.

**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.

**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.

**Publizitatea:** Kulturkari, S.L.

**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Erredakzioa:** Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

**Berriemaileak:** Joseba Azpiroz,

Esteban Arozena,

Juana Mari Saizar,

Iban Isasi,

Patxi Iriarte,

Patxi Otxandorena,

Jaione Otxandorena,

Alba Fernandez,

Lorena Galarregi,

Pablo Mendiburu,

Franck Dolosor,

Margari Etxenike,

Koro Irazoki,

Ana Mari Etxeberri,

Frederick Berruet,

Elixabet Iturria,

Garbiñe Maiz,

Oskar Txopereña,

Pello Apezetxea,

Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

**Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa,

Mikel Bezunartea,

Belarra...

**Inprimategia:** Gertu.

**Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza,

Goizueta, Arano, Areso, Baztan,

Urdazubi eta Sarako udalak,

Bortzirietako Euskara

Mankomunitatea, Malerrekako

Zerbitzu Mankomunitatea...

**Harpidetza sariak:**

Hego Euskal Herria . . . .2.200 Pta.

Ipar Euskal Herria . . . .160 Libera

Europa . . . . .4.000 Pta.

Amerika . . . . .16.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako  
Gobernuaren laguntza jaso du

## GAURKOTASUNeko GAIA

### Batxilergoaren ondotik, formakuntza edo unibertsitatea?

Bide zehatz bat hartu eta besteak alde batera uztea oso gogorra egin zait



Saioa SAGASTIBELZA  
Leitza

Joan den ostiralean bukatu genituen klaseak. Aste honetan azterketak izanen ditugu, eta hemendik hiru astera selektibitatea egin beharko dugu. Aprobaten badut Donostian psikologia egiteko asmoa daukat. Nahiago nuen Iruñeara joan, hango giroak gehiago tiratzen didalako, baina, Nafarroan, Opusean bakarrik ikasten ahal da psikologia. Horrek ez dit gehiegi erakartzen, eta pribatu izateak ere dexente mugatzen du.

Ni nahiko herrizalea izan naiz beti, eta gu izan gara lehenak Leitza 18 urterarte ikasteko aukera eduki dugunak, baina kanpora joateak ere erakartzen nau. Orain arte, dena den, ez nuen batere argi, hasieran zuzenbidea ikasi behar nuela... baina asiguratutak ikustean gogoak kendu zaizkit. Azkenean psikologia egitea erabaki nuen, nola buruari buelta asko eman izan dizkiodan beti...

Neri karrera bat hartzeak baino beldur gehiago ematen zidan beste guziak alde batera uzteak. Orain arte dena orokorra izan du da, eta orain bide zehatz bat hartu eta besteak uztea oso gogorra egin zait.

Klaseko 25 ikasletatik 5ek bakarrik hautatu ditugu formakuntza zikloak



Idoia UNSIÓN  
Bera


Heldu den urtean Diseinu grafikoa edo bertzenaz Iruñea eta Soñua ikasi nahi dut, Irunen edo Andoainen. Ez dut sobera burukomunik izan aukeratzeko orduan, nahiko garbi nuen zerbait artistikoa edo irudiarekin zerikusia zuena egin nahi nuela. Egia erran ez dago aukera haundirik arlo horretan, eta alde horretatik ez da zaila izan. Hala ere, nik nahi ditudan ikasketak ezin dira inon ere euskaraz egin, eta erdaraz ikasi beharko dut nahitanahiez. Hori da makurrena, orain arte euskaraz egin baitut dena. Gure klaseko 25 ikasleetatik 5ek bakarrik hautatu ditugu horrelako formakuntza zikloak, berteze guziek unibertsitateko bidea hartu dute. Batek, berriz, uztea erabaki du lanean hasteko. Gehienak orientatzailearekin egon gara heldu den urtean zer egin erabakitzeko. Berak galdera batzuk egin dizkigu lehendabizi, ea formakuntza edo unibertsitatea nahiago dugun, eta gero non ikasten ahal dugun eta informazio gehiago ere bilatu digu.

Iruñean ez dago nik ikasi nahi dudana euskaraz egiteko modurik



Mari Jose SALABURU  
Iruñea

Zientzietako batxilergoa egin dut aurten, eta heldu den urtean FP1 egitea erabaki dut, informatikako adarrean. Baina Iruñean ez dago nik ikasi nahi dudana euskaraz egiteko modurik, Gipuzkoan edo Bizkaian ote dagoen ikusi beharko nuke. Nahiago dut euskaraz erdaraz baino, sobera zaila egiten baitzait erdaraz. Eibar eta Irunen badaude ikasketak hoiak, baina ez dakit euskaraz izanen diren, beharbada bai. Oraindik ez dakit ziur, baina seguraski Iruñean egin beharko dut. Izan ere, eskubaloian jokatzen segitu nahi dut, eta horretarako hobe dut Iruñean, zeren han baditugu loturak... Gure klaseko gehienak unibertsitateko joanen dira, eta ni ere dudana egon nintzen. Azkenean, ordea, FPn praktika gehiago dagoela erran didate, eta gainera karrera motzagoa da, unibertsitatean 5 urte eta FPn bi bakarrik. Hori akituta unibertsitateko sartzan ahal naiz. Neri arras zaila egin zait erabakia hartzea, eta orientatzailearekin sobera egon behar izan dut. Berak baditu galdera batzuk, eta guri gustatzen zaigunaren arabera zer ikasten ahal dugun erraten digu. Aunitz lagundu dit.



ttipi-ttapa  
fundazioak  
Europako  
Batzordearen  
dirulaguntza  
jaso du

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

### LESAKA:

• Asteleheneetik asteazkenera 9-13etara eta 15-19etara

• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

### BURLATA:

ARTEKARI, S.L., ☎ 948133328•133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- \\ Langile Autonomoak
- \\ Nekazariak eta mendi-langileak
- \\ Nominak eta Aseguro Sozialak
- \\ Lan-kontratutarako laguntzak
- \\ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- \\ Diru-laguntza ezberdinak
- \\ Kontabilitateak
- \\ IVA eta IRPF
- \\ Errenta aitopenak
- \\ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- \\ Bideragarritasun planak

## IRAKURLEAK MINTZO

Aresora bazatoz hobe duzu «ona» izatea, bestela...  
... bestela ez duzu pakerik izango, ez behintzat «amen, amen» esan beharrean zure nortasunaren arabera bizi nahi duen horietakoa bazara. Eta badugu arrazoirik hori esateko, Alkatearen hitzaten berak, Alkate izanik, herrian gertatzen den dendena jakin behar baitu. Kontrolatu ere bai, agian? Horrelaxe erakutsi die, besteak beste, Guraso Elkarteakoei. Orain arte funtzionamendu autonomoa zuen talde honek eta baita eskolako giltza bat ere, behar zutenen erabiltzeko (dantza, xakea, pilota,...). Baina orain ez. Pareta berriak ezarri eta giltzak aldatu dituzte. Orain, edozein aktibitate egiteko baimena eskatu behar dute, baita beraien bilerak egiteko ere. Bilera horietan ere egon behar izaten du Alkate Andereak. Gurasoak beraien artean ez haserretzeko izango da?

Lotsa ere ematen du gazteei eta Guraso Elkartekoei buruz esaten dituztenak aipatzeak: «eskolako lokalak gaztetxe modura erabiltzen omen dituzte, gazteek drogak hartzen omen dituzte, eskolorduez kanpo politika egiteko erabiltzen omen dute urtetan zehar Guraso Elkartearen ahaleginez osatutako liburategia (antza, herriko ezaugarri, gertaera eta historiari buruzko liburu batetan bi herritar atzilotu/preso egonak direla aipatzen

da: 4 lerro liburu oso batean!). Hori bakarrik ote da «politika»? Argibiderik behar duenak Alkate Andereari galdetu, «txuxen-txuxen» esplikatu-ko dio eta.

Udaletxearen aurrean ere desberdinak gara herritarak. Batzuk «gaiztoak» eta besteak «onak». «Gaizto» horietako batek, EHko zinegotzia bera, bere borda inguruan lurjauzi txiki bat zeukan eta txukuntzea bururatu zitzaion, harrizko pareta txiki bat eginenez (borda hau herriko nukleotik nahiko kanpora dago, toki ezkutuan). Astebetara gutuna jaso zuen baimenik ez zuela eskatu eta, beraz, baimena eskatzeko eta, ematen bazaio, dagokion tasa ordaintzeko.

Herriko beste zenbait etxetan, HERRIERDIAN, «onek» obrak egin dituzte, edo ari dira, eta... ezetz asmatu? «On» hauek ere ez dute baimenik eskatu. Baina «onak» direnez ez zaie «gutuntxorik» iritsi. Antza, inor ez da ohartu obra horietaz.

Joxepa Onsalo, Milagros Oreja, Juanita Arribillaga, Migel Zabaleta,... mesedez! Ez gaitzazue tontotzat har, ikusi nahi ez duena baino itsuagorik ez dago eta!

Baimen eta tasa horiei buruz... zuek proposatu eta onartu dituzue. EHk aurkako botua eman zuen. Baina, Udaletxearen erabakiak herritar guztiei eragiten dienez, «gaiztoei» baina baita «onei» ere, honek ere bai.

Alderdi politikoen funtzionamenduaz Alkate Andereak

## OHARRA:

*Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, ttipi-ttapak bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.*

duen ikuspegia ere xelebrea da. Berari ondo datorkionean bakarrik bil gaitzeko Udaletxean. Orain arte HB-EHk batzar irekiak egiten zituen, hileko azken ostiralean, Udaletxean. Orain, ordea, badirudi Alkate Andereak, Alkate karguaz gain, herriko edozein gauza berea dela uste duela. Pleno aretoa abertzale «gaizto»ekin zerikusirik ez duen norbaitek eskatzen badu, ez dago oztoporik irekitzeko (berak edo bere taldeko norbaitek ireki/ixten du, edo eskatzen duenari ematen dio giltza). Eta ez zaigu gaizki iruditzen, Areson ez baitago beste lokal publikorik. Baina guk ere tratamendu bera eskatzen dugu.

Aurreko hilabetean eman zigan, legealdi honetan lehengo aldiz eta baimena idatziz eskatu ondoren, Udaletxean biltzeko aukera. Alkate Anderea ondoko gelan, bazpare. Bilera erdian, berak etxera joan behar zuela eta bilera bukatzeko esanez, atea itxi zigan nahiko modu «jatorrean». Gure elkarriketarako ahaleginak alferrikakoak izan ziren. Oraingoan okerragoa, edo xelebregia, izan da erantzuna. Ostiral gauerako eskatu genuen baimena, eta baimena eman bai, baina ostegun arratsalderako.

«Onak» izateko Alkateari eta bere taldeari «amen, amen» esan behar badiegu, «gaiztoak» izango gara. Gure nortasunaz harro gaude eta herriarren alde lanean jarraitu-

ko dugu, jartzen dizkiguzuen oztopo eta zikinkeriak gaindituz.

ARESOKO EH



Eskerrak eman: Pello jatorra: Benetan eskerrak ematen dizkizut zure Maximori buruzko oroitzapenagaitik. Ni ez naiz lesakarra bainan, maiz joaten nintzen Lesakara eta beti, nere inguruan, berari buruz gauza ederrak aditzen nituen. Bai eta ikusten eta aditzen! Horrelako hamabirekin, ez Euskalerrri osoa, nork daki mundua ere ederragoa izanen zen! Baduzu bai zortea, horrelako lagun on bat ezagun izatea! Eta guk ere, nahiz eta hain lagun ez baginen ere! Pakean bizi, Maximo! eta lagundu Pello eta bere antzekoak izan nahi dugunoi. Besarkada beroa Donostiatik... nafarra izanik.

AINTZANE

rmarta@euskalnet.net



# ikazoka 00

merkatu  
plazan

hezkuntza eta  
berrikuntza **azoka**

Maiatzaren **DURANGO**  
18tik 21era

ordutegia: ostegunetik larunbataz 10:00etatik 14:00etara 16:00etatik 20:00etara

igandak 10:00etatik 14:00etara



✍ Mattari PLAZA *Lekaroz-Elizondo institutuko orientatzailea*

## Hausnarketa egin eta erabakia hartzeko ordua



Orientatzaile gisa, nire lana tutoreen bitartez bideratzen dut, eta bertze batzuetan ikasle eta familiarekin zuzenean egiten dut. Erabakiak ikasleek hartu behar dituzte, eta, horretarako, hausnarketa sakona egiteaz gain, erabakiak hartzen ikasi beharra dute.

Kasu gutti batzuetan, 16 urte bete dituzten zenbait ikasle ez du ikasten jarraituko, irakaskuntza sistema ez baita gauza izan haien beharrak asebetetzeko; eskola utzi eta lan bila hasiko dira, baina hartutako erabakia benetan larria da, ikasle hauek inolako prestakuntzarik gabe lan-munduari aurre egin beharko baitiote.

Ekonomia indartzen doan garaian, ez dute zailtasun handirik izanen lanik aurkitzeko, baina krisialdi garaian beraiek izanen dira lehengoak ondorioak jasatera koan.

Aurtengo ikasturtean Hezkuntza sistema berriaren ezarpena akitutzat ematen ahal da. Hemendik aurrera, sistema bera ebaluatu beharko da, ikusteko esparru ezberdinetan proposatutako aldaketek zegozkien ondorioak izan dituzten ala ez, non aurkitzen diren zailtasun handienak e.a.

Gure gizartean aldaketak gero eta bizkorragoak dira, eta eskola ere nolabait moldatu behar zaie ematen ari diren aldaketek. Prestakuntza aldetik gero eta nabarmenagoa da gure gizarteak langile espezializatuen beharra

daukara, kontuan izanik lan merkatu aldakorra dela.

DBHko 4. mailako gure ikasleek etorkizunerako bi aukera dituzte: Erdi mailako Lanbide Heziketa edo Batxilergoa.

Lanbide Heziketa aukeratzen dutenek, ikasketak amaitu ondoren lan mundurako irtenbide zuzena dute. Eskaintza arras zabala da eta lanbide arlo guztiak hartzen ditu. Eskaintzen diren zikloek teknikariak formatzen dituzte eta, kasu gehienetan, lanbide heziketa amaitu on-

Lanbide zikloak aukeratzen dituzten 10 ikasleetatik 7 mutilak dira.

Dena den, ikasle gehienek unibertsitateko bidea aukeratzen dute.

doren enpresetara jotzen dute lan egitera. Gure eskualdean ikasle gehienek bertako eskaintza hartzen dute, gutti dira Iruñera edo bertze eskualdeetara joaten direnak. Lanbide zikloak aukeratzen dituzten 10 ikasleetatik 7 mutilak dira.

Dena den, ikasle gehienek unibertsitateko aukera hartzen dute. Hauek hautespen azterketa, selektibitate, egin beharra dute (Goi Mailako Lanbide Ziklotik sarrera zuzena dute). Aurtun balorazio irizpideak aldatu dira: ikaslearen batxilergoko batz-bertzeko espedientearen balioa %60koa izanen eta eta hautespen azterketarara %40. Orain arte, bakoitzaren balioa %50ekoa zen. Ikaslearen espedienteari garrantzi handiagoa ematen zaio, beraz.

✍ Kristina ELSO *Leitzako Amazabal institutuko orientatzailea*

## Batxilergoa... eta ondoren, zer?



Aurtun Leitzako Amazabal Bigarren Hezkuntzako Institutuan, LOGSE Batxilergoa amaituko duten ikasleek lehenengo promozioa izanen dugu. Betidanik Leitzako Institutuan ikasitakoek heldu den ikasturtean beren herritik at ikasteaz gain aukera aunitzen artean hautatzeko behar izanen dira, hara nola: unibertsitateko ikasketak burutu, goi mailako ziklo formatiboetara jo edota lan mundura igarotzea.

Gure ikasleek joera kontuan harturik, esan liteke orokorrean erdiek baino gehiagok Unibertsitatean ikusten duela etorkizuna; gainontzekoek, berriz, Goi Mailako Ziklo formatiboetan. Banaketa honetan sexu desberdintasunak nabarmenak dira, nesken artean Goi Mailako Ziklo Formatiboetara %25a soilik doan bitartean, mutilen kasuan erdiek joera hori agertzen dute. Beraz, oraindik ere, pentsamendu sexista adieraz lezake gaur egun hainbat ofiziotan gizona soilik irajantzen baititugu, eta bestalde, mutil gazteengan bizirik da ikasketak burutu eta lehenbailehen lanean dirua irabazten hasi nahia.

Unibertsitate ikasketen artean eskaerarik altuena agertzen dutenak, irakaslego diplomatura (berezitasun desberdinetan), psikologia eta pedagogia lizenziaturak, ekonomia eta enpresaritza ikasketak, injinerutza tekni-

koak eta injinerutza lizenziaturak dira. Hauetatik, Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskaraz burutzeko aukerak oso murriztak dira, irakaslegoaz kanpo eskaintzarik ez baita existitzen, irakasgai solte batzuetan salbu. Ondorioz, gure ikasleek euskaraz ikasi nahi badute, Euskal Herriko Unibertsitateko joan behar izaten dute, baina Lanbide Heziketako Ziklo Formatiboan kasuan, bai Nafarroan, bai Euskal Autonomi Erkidegoan, euskaraz ikasteko aukerak oraindik

Nesken artean Goi Mailako

Ziklo Formatiboetara %25a

soilik doa, eta mutilen erdiek, berriz, joera hori dute.

Mutil gazteengan bizirik da ikasketak burutu eta

lehenbailehen lanean dirua

irabazten hasi nahia.

ere oso sinbolikoak direla esan daiteke.

Bestalde, selektibitatearen presioa dela medio, askok Goi Mailako Ziklo Formatiboetara joatea nahiago dute, bertan sartzeko frogara hori gainditu beharrik ez baitago. Praktikoagoak diren ikasketetan arituz gero, Unibertsitateko igarotzeko zubia posible denez, bide hau erakarria suertatzen zaie.

Gainera, hainbat urtean ikasten jardun ondoren, lana aurkitzeko zailtasunak eta lan-gabeziak kezkatzen ditueenez, Lanbide Heziketaren bidez lan munduan hastea errexagoa izango duten ideia dute.



## PRENTSATIK BILDUTAKOAK

## 11 GALDERA LABUR



Diario de Navarra 00ko maiatzak 5

«Enpresarekin hitz egin dut baina ez dut deus ere sinatu Asegarcerekin eta ez dut deus sinatuko aurrez probatu eta nola nagoen ikusi baino lehen. Kantxa gainean nere burua nola ikusten dudana, horren arabera sinatuko dut edo ez. Hori bai, segitzekotan Asegarcen segituko dut».

Julian RETEGI  
Eratsungo pilotaria  
Diario de Navarra  
00-05-05

«Nik nire lanari ez nion hainbertzerako meritua ematen, baina denborarekin konturatu naiz zerbait berezia

egin dugula. Orain pozik nago, ni joanen naizenean zenbait urtetan nitaz oroituko direlako».

Felix IRIARTE  
Arizkungo atabalaria  
Nafarkaria (Egunkaria)  
00-05-05

«Elizondoko abesbatza berriro elkarrekin ikusteagatik bakarrik merezi du 12 Ordu Eskuaraz prestatzeko egindako lana.».

Mari Cruz GOÑI  
12 Ordu Eskuaraz  
Diario de Navarra  
00-05-08

- ◆ Zein da Xorroxinen gehien atsegin duzun saioa?
- ◆ Nik aditzeko, «Karakola, segi hola».
- ◆ Elkarriketa informala, Xorroxineko tarte *arroxa* da?
- ◆ Bai, eta oraindik arroxagoa izatea gustatuko litzaidake.
- ◆ Eta Mari Karmen, Xorroxineko Klaudio Landa da?
- ◆ Ez, ez, ez! Klaudio Landa Mari Karmen baino ausartagoa da.
- ◆ Zein da egin nahi eta egin gabe gelditu zaren galdera?
- ◆ Morboa duten galderak, segun eta nori ez dizkiot egiten, errespetuarengatik.
- ◆ Nori eginen zenioke gustora elkarriketa informala?
- ◆ Arnaldo Otegi, hortan nabil... eta lortuko dut!.
- ◆ Zer da errexago, galderak pentsatzea edo erantzutea?
- ◆ Galderak luzatzea erantzutea baino errexagoa da, doike!.
- ◆ Zein saiotan aritzen zara gustorago, sexuari eskainitakoan edo erlijioari eskainitakoan?
- ◆ Sexologoarekin gustora aritzen naiz, baina baita erlijioa eta gizarte gaien buruzkoan ere, ez baita erlijio «ofiziala» agertzen, erlijioaren bertze aurpegia baizik.
- ◆ Pena hartu zenuen Xorroxinen estudioa Iruritatik Elizondora aldatu zenean?
- ◆ Haseran bai, dudik ez. Baina orai gustora nago, hagitzez toki goxo eta egokiagoan gaudelako.
- ◆ Iruritako bestetan gehien gustatzen zaizuna?
- ◆ Mezpera, Baztan zopa egune. Salvatore eguna ere bai, meza eta mezonoko dantza.
- ◆ Eta aldatuko zenukeen?
- ◆ Arrats batean, plazako musika taldearen ordean, kontzertua jarriko nuke, denen gustuko talde batekin.
- ◆ Iruritako Salvatoreak, Elizondoko Santioak, Baztandarren Biltzarra edo 12 Ordu Eskuaraz?
- ◆ Iruritako Salvatore bestak eta Azpilkuetako Sanferminetako emakumeen lagun arteko afarie.
- ◆ Galdetu gabe gelditu den zein galderari erantzunen zenioke gustora?
- ◆ Sexologia eta erlijioari buruzko saioetaz galdetu didazu eta Alkoholiko Anonimoei eskainitakoaz solastuko nuke.




Mari Karmen  
IRUNGARAI  
Xorroxineko esataria

Bortzirietako  
Herri  
Haurtzaindegia

0-3  
urte

Haur Hezkuntzako  
Lehen Zikloa  
Beran



- Hilabete batzuk, urtebete edota bi urte dituzten haurrentzat.
- LOGSE hezkuntza legearen araberako proiektu berri-berria.
- Bortzirietako gizarte nahiz pedagogia zerbitzu gisa diseinatua.

informazioa

948 630 172

Martxan!

## Lanbide orientazioa eskaintzen du gure eskualdean Bitartek

Betisa Anda da arduraduna Baztan-Bidasoa eta Leitzalarrean

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako mendialdean lanbide orientazioa eta kudeaketaz arduratzen den zerbitzu publikoa da, Cederna-Garalurerakundeak kudeatua eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak finantziatua.

Bitartek Nafarroako mendialdean lan egiten du, Cederna-Garaluren zortzi garapen agentziekin batera, bertako biztanleei lan munduaren inguruko laguntza orokorra eskaintzeko asmoz. Helburu nagusia, inguruko jendeak lana lortzea da, enpresen beharrak eta giza baliabiak egokituz.

Betisa Anda da Leitzalarrea eta Baztan Bidasoako arduraduna. Astelehenetan Leitzako Udaletxean izaten da, asteartetan Doneztebeko Juansenean, asteazkenetan Elizondon Balleko Etxean eta ortzegunetan, aste batean Beran eta bertzean Lesakako Herriko Etxean. Goizeko 11etatik 1etara aritzen da, arestian aipatutako lekuetan.



**Betisa Anda da Bitarteko arduraduna Baztan-Bidasoa eta Leitzalarrean.**

Argazkia: Aitor

Bertzela, 619 829289 telefonora deituz solasten ahal da berekin.

Zerbitzua langabetuei eta lanaz aldatu nahi dutenei zuzendua dago batez ere. Ikasketa eta lan munduko orientazioa eskaintzen du Bitartek. Gainera, Nafarroako enpresa guzien

eskura dagoen lan poltsan parte hartzen du interesatuak. Eskualdeko lan merkatuaren informazioa eta lana bilatzeko teknketan trebatzeko modua ere ematen da.

Lan bila daudenak ez ezik, enpresa pribatuak, Herriko Etxe eta kon-

tzejuak eta ikastetxeak ere baliatzen ahal dira Bitartek eskura jartzen dituen zerbitzuetaz. Ikastetxeen kasuan, hezkuntza zentrua eta lan merkatuaren arteko egokitzea (zonaldean lan egiteko aukerak, gehien eskatzen diren ikasketak) bilatzen du eta informazio eskaintzen dio ikasle, guraso eta irakasleei.

### UDAKO LAN POLTSA

Udaran merkataritza eta ostalaritzan sortzen den eskaria betetzeko sortu zen duela bi urte udako lan poltsa. Bitartek Bertizko Partzergoarekin batera antolatzen dute. Betisa Andaren ustez saiakera hau oso interesgarria da, «batez ere udaran ikasleei lana egiteko aukera ematen diegulako eta era berean, zerbitzuen beharrak asetzen ditugulako». Udako lan poltsan izen emateko, Baztan, Bortzirriak eta Leitzaldeko udaletara eta Malerrekako Mankomunitatera joan behar da eta bertan dauden fitxak bete.

Leitza, Lekaroz eta Doneztebeko Institutuetako ikasleen musika emanaldiak

Aurtengoan ere, Leitza, Lekaroz eta Doneztebeko institutuetako ikasleek musika emanaldiak eskainiko dituzte maiatzaren bukaeran, 1999-2000 ikasturteari akabaila emateko.

Kontzertu hauetan, hiru ikastetxeetako 300 ikaslek parte hartuko dute, ikasturte osoan musika arloan landu eta ikasitakoa jendaurrean eskaintzeko asmoz.

Lehendabiziko kontzertua maiatzaren 29an izanen da, astelehenarekin, Leitzako Amazabal pilotalekuan, arratsaldeko 5,30etan. Biharamonean, ordu berean, Lekarozko kiroldegiko pilotalekuan joko dute. Maiatzaren 31n, azkenik, Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan ariko dira, arratsaldeko 5,30etan. Herri bakoitzean, bertako institutuko ikasleek joko dituzte doinu gehien. Bertze institutuetakoek ere izanen dute beraien txanda eta denak elkarrekin aritzeko aukera ere izanen dute.

**ie** Iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekaritza
- Aseguruak

Kanttonberri 1 • BERA • Tel eta Faxe: 948 631169

**PINTURAS LEGUIA S.L.**

Rafa: 600 819 640  
Jose: 666 235 466

Eztegara 26, 2.C - BERA

**KATEA - BIKE**

**Bizikleta Tailerra**

Errepide, mendi, trekking eta haurrendako bizikletak

Arropa eta osagarriak

Salmenta eta konponketa

Kallitri I. S. E  
Tx-Tl 3121

**ZURGINDEGIA ZERRAILGINTZA**

**Jose Luis PAGOLA ETXEBESTE**

636 172895 • BERA

➔ BERA

# Presoen aldeko mobilizazio eta greba astea izanen da hurrengoa

*Euskal Herria kalera!* Iemak oihartzuna izanen du Beran ere

**ASIER GOGORTZA**

Duela gutti euskal presoek gizarte osoari greba orokorrerako deialdia egin ondotik, maiatzaren hondarreko astearako hainbat mobilizazio antolatu dute amnistiaren aldeko taldeek. Maiatzaren 22tik 27rarte protestak eginen dira lan sektore desberdinetan. Horrela, aitzinerago ere sektore bakoitzak bere neurriko ekimenak proposatzea da helburua.

Heldu den asteari begira, Beran, asteartean irakaskuntza sektorean greba deitu du amnistiaren aldeko mugimendurak, eta ortzegunean, berri, fabrika, merkataritza eta ostalaritzan. Asteazkenean, arratseko 8ak aldera, kontzentrazioa eginen da Herriko Etxearen parean. Herrian izanen diren protestaldiekin akautzeko, ortziral iluntzean enkartelada eta giza-katea eginen dira. Larunbatean, azkenik, manifestazio nazionala, isila, eginen da Donostian.



Altzateko BCHren bulegoari eraso zioten

Joan den maiatzaren 4an, gauerdialdera, Altzateko plazaren ondoan dagoen Banco Central Hispanoamericanoaren bulegoaren barnera molotoff koktel bat bota zuten ezezagun batzuk. Bankuko langileek adierazi digutenez, kalteak nabariak izan dira bulego barnean, suarengatik baino gehiago kearen eraginez.

Mobilizazio aste honen helburua presoak kartzela barnean egiten ari diren eskaera karraketan zabaltea da. Lerro hauek idazteko momentuan 165 euskal preso baino gehiago dago gose huelga mugagabeen Espainia eta Frantziako presondegietan.



75 lagun ateri ziren Mendi Bizikleta ibilaldian

Antolatzaileek uste baino txirindulari guttiago bildu zen Mendi Bizikleta itzuliaren hamargarren edizioan, beharbada azken urteetan egin ez delako eta egun berean bertze proba batzuk izan zirelako. Dena den, mendi bizikleta zaleen arteko giro onak heldu den urtean errepikatzeo gogoan utzi zuen antolatzaile eta txirindularien artean.

▼ flash

- ❖ Berako III. Herri Lasterketa... eginen da larunbat honetan. Adin guzietako lasterkalarietoki Ona kiroldegia-aren aitzinean izanen dute hitzordua arratsaldeko 5etan. Informazio gehiago: Patxi, 948 630 918.
- ❖ Albaiteroak ordutegi berria Doneztebetik ortziraletan etortzen den albaiteroak ordutegia aldatu berri du. Hemendik aitzinera ortziraleko 13,30etatik 14,15etara atendituko du Herriko Etxean.
- ❖ Lan poltsa Udan merkataritza edo ostalaritzan lan egin nahi duenak, Bertizko Partzuergoaren lan poltsan ematen ahal du izena. Herriko Etxean eskatu informazioa.

Bortzirietako Herri Haurtzaindegia


0-3 urte

Haur Hezkuntzako Lehen Zikloa Beran

- Hilabete batzuk, urtebete edota bi urte dituzten haurrentzat.
- LOGSE hezkuntza legearen araberako proiektu berri-berria.
- Bortzirietako gizarte nahiz pedagogia zerbitzu gisa diseinatua.

informazioa


948 630 172



Martxan!



➔ LESAKA



Musika eta dantza uztartuak ikastolaren 25. urteurreneko ekitaldian Tantirumairu ikastolaren 25. urteurreneko ekitaldien barnean kontzertu ederra egin zen maiatzaren 6an plazan. Lesakako musika taldeekin batera, Berako abesbatza eta Berako trikitilariak aritu ziren. Musika ez ezik, dantzarako tartea ere izan zen Tantirumairu dantza taldekoen bidez. Belarriak eta begiak goxatzeko moduko ekitaldia eskaini zuten denen artean.

Argazkia: ttipi-ttapa TB

**Personaiak**

**Gose huelga utzi egin behar izan du Iñaki Fagoaga herriko presoak**

Gose huelgaren hirugarren astean sartu behar zenean ongi ezik sentitu eta huelga utzi behar izan zuen Iñaki Fagoaga, herriko preso politikoak. Joan den urteko azaroaz geroztik beraien eskubideen aldeko borroka honetan sartuak dira presoak. Oraingo honetan, ehundik goiti dira grebari ekin dioten presoak. Lesakako Presoen Aldeko Taldeak ere elkartasuna adierazi nahi die Iñakiri eta bertze presoek, maiatzean hasi eta uztailean bitarte asteburuero eginen diren 48 orduko baraualdien bidez. Baraualdia Udaletxeko pleno aretoan eginen da «Presoak etxera» lelopean, ortziral ilunabarretik igande arratsaldera. Asteburuero talde desberdinak hartuko du baraualdia egiteko ardura. Momentuz, EH, Haika, Gazte Asanblada, Tantirumairu dantza taldea eta bertze talde eta elkarte batzuk adierazi dute baraualdian parte hartzeko borondatea.

# 312 milioi pezetako udal aurrekontua onartu da aurten

Andra Mari Zahar Etxean 46 milioiko diru sarrera-irteerak izanen dira

**AITOR AROTZENA**

312.977.500 pezetako diru sarrera eta irteerak izanen ditu aurten herriak, apirilaren 7ko batzarrean EAJ-EAko zinegotzien aldeko bozuekin eta EHkoen kontrakoarekin onartutako udal aurrekontuaren arabera. EHkoek adierazi zutenenez, «gure parte-hartzea ez da kontuan hartu eta inbertsioetan ez dira sartu ez Kultur Etxea ezta babes ofizialeko etxebizitzak ere». Inbertsioei dagokienez, 31.250.000 pezeta gastatuko dira: 12 milioi Irain eskola moldatzeko lanetan (Nafarroako Gobernuak 7 milioi ordainduko ditu), seina

milioi Kultur Etxea egiteko proiektuan eta enpresa mindegiko ekipamenduan eta 3 milioi Zahar-Etxe zaharra bostatzeko. Andra Mari Zahar Etxearen aurrekontua, 46.250.000 pezetakoa izanen da.

8.735.000 pezeta kirol eta kultur elkarteentzat

Herriko Etxeak 8.735.000 pezeta emanen ditio aurten herriko kirol eta kultur elkarte eta taldeei, urteko ekitaldien antolaketan laguntzeko. Musika taldeei dagokienez, abesbatzak 300.000 pezeta jasoko ditu, txistulariek 330.000, akordeolariak 150.000, musika ban-

dak 400.000 eta trikitilariak 200.000 pezeta. Antzerki tailerrak 150.000 pezeta hartuko ditu, Herri Eskolak 350.000 pezeta, Irain Guraso elkarteak 406.000 pezeta, Otxorrienea Guraso elkarteak 420.000 pezeta, Irain dantza taldeak 217.000 pezeta, Tantirumairu dantza taldeak 190.000 pezeta, Arrano elkarteak 190.000 pezeta eta Txalaparta Aisialdi taldeak, 95.000 pezeta. Ikastolaren 25. urteurreneko ekitaldietarako 674.000 pezeta bideratuko dira eta 150.000 pezeta Santa Zezilia egunerako.

Kirol ekitaldiak antolatzen dituzten elkar-

teendako dirua honela banatuko da: Eguzki-elkartearentzat 300.000 pezeta, Arkuperezat 200.000 pezeta, Basurderentzat 50.000, Batzokirentzat 498.000, San Fermin jubilatuek elkartearentzat (soinketa) 100.000 pezeta eta Beti Gazterentzat 3.365.000 pezeta.

Nahikari Larralde saritua Bertso paper lehiaketan

Irain eskolako Nahikari Larralde saritua suertatu da Nafarroako Eskolarteko XIV.1 Bertso-Paper lehiaketan. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleei zuzendutako saria irabazi zuen Nahikarik.



Iñaki FAGOAGA

**BEKO ERROIA**  
Lore eta landareak  
☎ 948 63 78 26  
Frain auzoa • LESAKA

**Txema Etxarte**  
Zolen akutzilatze eta  
bernizatze profesionala  
☎ 948 637439 • 670 215604 • 31700 LESAKA

**Deñe**  
LENTZERIA  
MERTZERIA  
Tfnoa.: 948 627 514  
Beheko Plaza 8, LESAKA

**kixkur**  
Ileapaindegia  
Tel: 948 637429  
Bittiriako Plaza, 3 behe  
LESAKA

ETXALAR

# Gasna Feria ekainaren 4an izanen da

Haurren Eguna, berriz, ekainaren 18an

**PELLO APEZETXEA**

Aurtengo Gasna Feria ekainaren 4an egingen da, bertako eta inguruko gasnagileen partehartzearekin. Gasna lehiaketa eta salmentaz gain, eskulanen erakusketa ere ikus ahal izanen da. Hurrengo TTPI-TTAPAN xehetasun gehiago etorriko da.

Usoa Koperatibako junta berria

Usoa Kooperatibak Junta berri du, apirilean egindako Batzar Nagusian. Juntara sartu direnak honako hauek dira: Goienetxegaraiko Jose Angel Goienetxe, Armitzeko Kontxita Mikelestorena, Lakatoneko Bordako Patxiku Irisarri eta Behekoetxe-

ko Benantzio Elizagoien. Lehendik segitzen duten Landaburuko Bordako Gerardo Danboriena, Xoraxuriko Bordako Mariasun Olagarai, Sainduneko Bordako Manuel Aranburu eta Kattonen Bordako Jose Luis Iparragirrekin osotzen dute Junta. Zainketa Batzordea deitzen denerako, berriz, Baztanen Bordako Jose Mari Danboriena, Arri-neko Bordako Jesus Mari Irigoien eta Berako Fernando Etxebeste dira hautatuak.

Bideetako arauak ezagutzera eman dira Iparraldean ere

Mugaz bertze aldeko jendea ere ibiltzen da gure mendietan, oinez eta autoz. Horregatik,



Haurrak pilota eskolan aritzen dira asteazkenetan. Haurrak, eta haundixeagoak, orain ere aritzen dira pilotan, nahiz eta ez dua urte batzuk hainbat. Hainbertze gauza dute egin beharra. Asteazken arratsaldetan ikusten ahal da pilota-plazan, Luis Mari Retegiren gidaritzapean.

beharrezko da Iparraldekoek nahiz Frantziatik etortzen diren turistek mendiko bideetan ibiltzeko arauak ezagutzera. Horretarako argitaratu eman ditu Udalak arau horiek Iparraldeko hedabide batzuetan.

Igerilekuetako lana

Igerilekuetako lana Murdeneko Oihana Sanzberro eta Etxeberriberoko Itziar Iriartek hartu dute, Udalak eskeintza onartu ondotik.

Arkupeak elkarte kideak oinez ere

Maiatzaren 9an oinezko eta autozko ibilaldi nahasia edo auke-rakoa egin zuten Arkupeak elkartekoek. Denerata 200 bat ibili ziren eta etxalartarrei dago-kienez, Berara autobusez joan ziren lehenbizi. Handik Lizarietara edo herriraino oinez egin zuen zenbaitek. Hondarrean, denek bazkariaez gozatu omen zuten Etxalarko Bentan.

Agintariak gorrarena egiten

Osasungintzako zerbitzuak murriztean lehenbizi, eta korreokoa gero, inorekin kontatu gabe hartu dute erabakia. Ondotik, jendea, zuzenean edo Udalaren bidez mintzatu denean, ez adituarena egin dute. Udalak bi aldiz galde-tu die korreoko ardura-dunei elkarrekin biltzeko, gaiaz solasteko, baina ez erantzutea izan da orain arteko jokaera.

**KATTU**  
ostatu - jatetxea  
Plater konbinatuak eta menuak  
☎ 948627573 • LESAKA

**XATURETXEA**  
  
JATETXEA  
Tfnoa: 948637027 LESAKA

**IRU BIDE**  
ERRETEGIA  
  
Tfnoa: 948 637 127  
LESAKA

**Javier Manterola**  
TEKNIKO  
INSTALATZAILEA  
iturgintza • gasa • kalefakzioa  
Tfnoa: 948 630 031 • BERA

**ANA**  
janaridenda  
Bittiria, 41 • ☎ 948637518  
LESAKA

**Ioredenda**  
Albistur, 39-K  
☎ 627542  
LESAKA  
• bitxikeriak •  
• opariak •  
• enmarkazioak •

**BORTZIRI**  
UNSION ANAIAK  
sukalderako haltzariak  
ERAKUSKETA  
Bereau etxea • LESAKA  
Tel eta Faxe: 948 637 266

**OBRA PROIEKTUAK**  
✓ Etxe berriak eraikitzeko  
✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik  
✓ Urbanizazio proiektuak  
✓ Obra-zuzendaritza  
Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan  
**BIDASOA**  
arkitektura bulegoa  
Bittiria, 45 • ☎ 948 637 503 • LESAKA

IGANTZI

# Udaberria ekitaldiz betea, haur eta helduentzat

Heldu den larunbatean izanen da Goizuetara egiten den ateraldia

**OSKAR TXOPERENA**

Aipatu genuen urtearen hasieran eskolako 5. eta 6. mailakoak aurtengoa beharrezko kanpaldia Erronkari aldean eskiatzen egina zutela. Aste honetan ailegatu da bertze guzien txanda. Atzo ziren itzul-tzekoak Hondarribiatik 1., 2., 3. eta 4. mailakoak, asteko lehendabiziko hiru egunak bertako aterpean eman ondotik. Haur Hezkuntzakoek, berriz, ortzeguna eta ortzirala pasatuko dituzte leku berean. Urte akabailan egiten diren bertze bi ekintzen data ere badakigu: haurraren eguna ekainaren 2an eginen da, eta eskursioa, berriz, ekainaren 16an, ia bezala Landetara seguraski.

Zinema emanaldia  
Joan den larunbate-



Dantzari tikiak Hamabi Ordu euskaraz bestan Ederki pasatu zuten herriko dantzariek Elizondon antolatutako "Hamabi ordu euskaraz" bestan. Bertze 200 dantzarirekin batera aritu ziren frontoi barrenean, giro ikusgarriarekin.  
Argazkia: Oskar Txoperena

an zen egitekoa zine emanaldia herriko plazan, Nafarroako Gobernuak antolatzen duen "Udaberriko Bira"ren barrenean, "Agnus" pelikula izan zen aukeratu ekitaldi honetarako.

Mendiz Goizuetara Heldu den larunbaterako, maiatzaren 20rako, paratu dute Biltokiak hitzordua Goizuetara mendiz joateko izena eman duten guzientzat. Joan den astele-

na zen izena emateko azken eguna, 2.500 pezeta ordainuz bazkideek eta 3.000 ez direnek. Itzulia, ohikoa denez, autobusez eginen da, urtero bezala uste baino beranduago seguraski.



Frontenis txapelketa

Joxelu Irazoki eta Bittor Txoperena nagusitu ziren Igantzin zuzen den 1. Frontenis Txapelketan. Argazkian, finalean gairitu behar izan zuten bikotearekin batera ageri dira, Patxi Irazoki eta Joanes Otxotekorekin batera, alegia. Hemendik aintzina palaren txanda heldu da. Herrian aunitzez indar gehiago duen modalitate honetan parte hartzeko irekia da dagoeneko izena emateko epea. Txapelketa hau ere Biltokiak antolatzen duenez, bertan eman behar da izena, maiatzaren 31a baino lehen, jokalari bakoitzak 2.500 pezeta ordainduta.

**ZALAIN**  
Zalain Auzoa  
☎ 948631106  
BERA  
Boda eta banketeak ematen dira

**BERRAZUN**  
Makinaria eraikuntza  
Moldaketak eta despiezea  
Mantenimendu mekanikoa  
Torno, fresadorak, errektifikadorak  
Igantziko Bentak • ☎ 948 627572 • Faxes: 948 637508

**Jose Canabal**  
elektrizista  
☎ 948 637541  
☎ 666 575899  
IGANTZI

**Alberto RETEGI**  
abokatua  
Altzate 17  
BERA  
☎ 948 630 763

**JESUS M<sup>a</sup> YANCI**  
▶ ITURGINTZA  
▶ KALEFAKZIOA  
▶ BAINUEN ERREFORMA  
Tel. 948 631484 • BERA

**LAGUNA - GOZATEGIA**  
Altzate, 19 • ☎ 948630786 • BERA

**rtzi U I**  
E  
Eziz 12 h T I F X 31521

**ROMANO PINTURAK**  
Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa eta sintasola.  
☎ 948 63 11 37 / 649 84 01 49 • BERA

**LEBAKA**



➔ ARANTZA

# Erabaki garrantzitsuak hartu zituen Udalak maiatzeko batzarran

Antzerkia izanen da larunbatean, Udaberriko Biraren barnean

ELIXABET ETA GARBIÑE

Udalaren azken batzarre joan den astean egin zenez, oraindik berri berri ditugu hartutako erabakiak. Bertze gai aunitzen artean puntu hauek jakinaraziko ditugu.

TURISTENDAKO APARKALEKUA

Azken hilabeteotan aitzinera eta gibelera dabilen aparkaleku turistikoko afera, badirudi azkenean proiektua aitzinera aterako dela. Bi enpresek aurkeztu zituzten beraien proiektuak eta azkenean Arkaitza enpresa beratarren egitasmoa aukeratu zen plenoan. Ahalik eta lasterren hasteko aipatu diotenez, berehala hastekoa dira.

UEMAREN ALDE

UEMA elkarteak he-



**Maiatzeko batzarrean erabaki garrantzitsuak hartu zituen udalbatzak.**

larazi zuen idazkia ere irakurri zen plenoan. Hortan, Abaltzisketan gertatu zena gaitzesten zuten, hau da Epaitegi Gorenak UEMAKo atxikimendua baliogabetu zuten sententzia. Oraindik gogo gehiagorekin lan egiteko deia egiten zuten. Sententzia hau lotsagarritzat eta onarte-

zintzat jo dute. EAJ alderdikoak abstenitu baziren ere, aurrera ateratu zen mozio hau eta bertan Udalak euskarari lehentasuna ematea onartzen da.

BERAKO GINEKOLOGI ZENTROAREN ALDE

Beran sortuko den ginekologi zerbitzu be-

rriarekin plenoa ados agertu bada ere, zerbitzu hau Bortzirietan zabaltzea hobeki egonen litzatekeela uste du eta ez Beran bakarrik.

Autoa erre diote herritar bati

Maiatzaren 7an, astelehen goizaldean, herrian gertakari iluna izan zen. Goizeko 2ak aldera, itxura guzieren arabera, ezezagun batzuek Goiko Karrikan aparkatuta zeuden hiru kotxeri su eman zioten. Bi kotxe dexente hondatu ziren, eta hirugarrena erabat kixkalia gelditu zen. Guardiazibila herrian barna ibili zen eta haseratik, motibu politikoak erabat baztertu zituzten.

Antzerkia larunbatean

Urtero antolatzen den bezala, aurten ere

➔ BORTZIRIAK

Amorruaren aurkako txertaketa kanpaina Arantzaz, Igantzi eta Lesakan

Urtero bezala, amorruaren aurkako txertaketa kanpaina egingen da aurten ere. Lesakan, maiatzaren 22 eta 23an egingen da, arratsaldeko 3,30etatik 6etara bonberoen ondoko biltegian.

Arantzaz, maiatzaren 24an, arratsaldeko 3,30etatik 6etara egingen da pisuan. Igantzian, beriz, maiatzaren 25ean, arratsaldeko 3,30etatik 6etara egingen da arkupetan.

Jakina denez, lau hilabete baino gehiagoko zakurrak nahitaez txertatu eta identifikatu behar dira.

Udaberriko Bira herri-ara ailegatuko zaigu. Larunbatean, maiatzaren 20an, antzerkia izanen da arratsaldeko 7,45etan. Shambhu taldearen eskutik, «Puffen mundua» antzezlanak ikusgai izanen da plazan (pilotalekuan eurria egiten badu).

**ANTZUZELAI S.L.**

Inungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

**HARRI NATURALA**

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximinia
Angeluak	Erlizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujardua' Zahar antzekoa      Macizoa Txapeletua

**ZINTARRIAK ADOKINAK ZOLAK**

**ALBERGEA JATETXEA**

ATERPE ALBERGEA

☎ 948 634179

**ARANTZA**

**ALZURI**

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 948 630 370 • BERA

**SAROB**

**okindegia**

**SANDERS Pentsuak**

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

**DROGUERIA MOLINERO**

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina  
10 minututan zuk nahi duzun kolorea  
Profesionalentzat prezio berezia

Eztegara 19 • ☎ 948 63 02 40 • BERA

# Amerikanoen besta ospatu zen maiatzaren lehenean

Beti bezala, lur azpian egindako ogiarekin berendua egin zuten

JAIONE ETA ALBA

Urtero bezala, amerikanoen besta ospatu zen maiatzaren 1ean. Ulibeltzak elkartean bildu ziren 23 lagunak. Joxe Mari Arretxea, Itxegi, izan zuten sukaldari eta arratsaldean, Itxegik berak lur azpian egindako ogiarekin eta gaztarekin berendu zuten. Aipatu behar da joan den urteko jende kopuru bera zegoela aurten ere, baina hasierako urteetan baino aunitzez guttiago.



Urtero bezala, ederki pasatu zuen «amerikanoek» maiatzaren 1ean egindako bestan.

Zirkoa Sunbillan

Joan den maiatzaren 8an izugarrizko karabana aunitz ailegatu ziren Sunbillara, eta berarekin batera zirkoko karpa. Biharamonean, arratsaldeko 7etan eskaini zuten beraien emaldia. Ez zen kanpoko jenderik etorri zirkoa

ikustera, baina sunbildar dexente bildu ziren, haurrak batez ere. Ordu terdi iraun zuen emaldia eta irri ederrak egin ahal izan genituen, animaliekin, pailazoekin eta taularatu zuten gainerako ikuskizun guzietan.

Antzakaitz taldearen bilera larunbat honetan

Larunbat honetan, maiatzak 20, Antzakaitz kultur taldearen bilera egingen da arratsaldeko 3etan. Bilerara lokalean egingen da eta gaiak garrantzitsuak izanen di-

renez, taldeko kideen parte hartzea eskatu da. Bide batez, taldea sartu nahi duen edozeini zabaldua dagoela jakinarazi nahi dute Antzakaitz Kultur taldekoek. Bilerara agertu edo taldekidekin egon behar da horretarako.

*Personaiak*

**Edurne Antsizar Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasle onenen artean**

Edurne Antsizar Ibarra sunbildarrak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Langile ikasketak burutu ditu eta ikasturte akabailako bigarren espediente onena aurketu du. Honela, Caja Navarra erakundeak emandako tituluaren eta 100.000 pezetan jabe egin da. «Karrera hau bizi egin behar duzu eta gustokoa izan behar duzu. Teoriaz gain, norbere barmetikateratzen dena erakutsi behar da praktiketan eta nik gustora egiten dut hori».



Edurne ANTZIZAR

**GAZTANDEGIA**  
  
**LIZUN**  
 Etxeko Ardi Gazta  
 Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

**J. RAMOS**  
 Zolak akutzilatu eta barnizatzen dittut  
 ☎ 948631342 BERA • ☎ 948637172 LESAKA

  
 ☎ 948631076 • BERA

  
**APARAN, S. A.**  
 BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133  
 948 451 541  
 Faxe: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

**PITTI**  
**ESKABAZIOAK**  
  
 ☎ 616 513491 • DONEZTEBE

➔ **MALERREKA**

# Doneztebeko judo eskolakoek zortzi domina lortu dituzte Nafarroako txapelketan

Lau urrezkoak izan dira, zilarrezko bat eta brontzezko hiru

TTIPI-TTAPA

Oskar Mindegiak zuzentzen duen Doneztebeko judo eskolako neska-mutikoek emaitza bikainak eskuratu zituzten maiatzaren 6an Zangoztan jokaturako Nafarroako txapelketan. Hamabi judoek hartu zuten parte 11 urtez beheitiko benjamin mailan eta hamahiru urtez beheitiko alebin mailan. Zortzi domina etxeratu zituzten eta horietatik lau urrezkoak izan ziren: Benjaminetan, Nafarroako txapeladun suertatu zen 26 kiloz beheitiko kategorian, Aritz Alunda Pain, 8 urteko doneztebarra.

Alebinetan, hiru izan ziren urrezko dominak: Mutikoetan, Niko Mindegia Elizagak 42 kiloko kategorian eta Ibai Mariezkurrena Sagastak 52 kilokoan eta nesketan, Cristina Mindegia San Martinek 47 kilokoan. Cristina izan zen Doneztebetik joandako neska bakarra.

Zilarrezko domina Pascual Bertiz Baleztenak eskuratu zuen ale-

binetako 47 kiloz beheitiko kategorian.

Benjaminetako 42 kiloko kategorian brontzeko domina bana eskuratu zuten Iñigo Ostiz Escalada eta Iñaki Iruretagoiena Arregik. Pisu bereko alebinetan, Mikel Telletxea Gonzalezentzat izan zen brontzea.

Benjaminetan, Goraka Ordax Inbuluzketa, Jaime Sein Osinaga eta Jose Irurita Rubio, eta alebinetan Ibai Ordax Olabek ere hartu zuten parte.



**Doneztebeko judo eskolan trebatzen diren neska-mutikoek maila ederra erakutsi zuten Nafarroako txapelketan.** Argazkia: ttipi-ttapa TB

▼ **flash**

❖ Denboraldia akitu du Erreka eskubaloi taldeak Helduek jautsiera fasea jokatu behar izan zuten, baina nahiko aisa eutsi zioten kategoriari. Infantil eta kadete mailako neska eta mutikoek dexente ongi jokatu dute. Mutiko jubenilek, ligan ez zuten talderik aurkeztu baina kopan parte hartu dute, kadetetako jokalaririk batzuekin.

## 2000. urteko Azpiegitura Planaren barnean hainbat lan egingen dira Malerreka, Bertizarana eta Sunbillan

Nafarroako Gobernuak 2000. urterako onartu berri duen Azpiegitura lanen planaren barnean obra aunitz egingen dira Malerrekan.

Donezteben, Mourges etorbidean bilduko dira lan gehienak. Inguru horretan ur-hornidura eta saneamendu sareak berritzeko 25.477.000 pezetako in-

bertsioa egingen da Iruñetik, tentsio baxuko argindar sarea berritzeko, 7.831.000 pezetakoa, argiteri berria jartzeko 6.925.000 pezeta eta zola berritzeko 31.816.000 pezeta. Oitzen ere argiak berrituko dira, 7.988.000 pezetako inbertsioarekin eta Saldias eta Labaien arteko errepi-

dean ere argiak paratuko dira, 1.200.000 pezetako inbertsioarekin. Saldiasen, Danbolinako Borda baserrira bidea moldatzeko 4.048.000 pezetako inbertsioa egingen da. Labaienen, azkenik, kanposantua handitzeko lanetarako inbertsioa 6.679.000 pezetakoa izanen da.

Sunbillan eta Bertizaranan ere egingen dira bideak moldatzeko lanak. Sunbillan, Indinabaitia-Irageta eta Dantzainekoborda-Arretzekoborda bideak moldatuko dira 12.344.000 pezetako inbertsioarekin eta Legasan, Gazteluko bidea moldatzeko 4.200.000 pezetakoarekin.


FUNERARIA ZERBITZUAK

**Lesaka-Donztebe**



**MALDAERREKA, S.L.**

24 ordutako zerbitzua Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak  
Tfnoa: 948637404 • LESAKA  
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE



**BELARRA**

OSTATUA - JATETXEA

Amezitia karrika • DONEZTEBE  
Tfnoa: 948 45 03 06

**ETXANDI TXOKO**  
**jatetxea**

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91

**H. Lopez**  
**iturgintza**

- Kalefakzioa
- Gas Instalazioak
- Iturgintza industrialia
- Ureztatze sistemak

Tel.: 948 45 21 26  
Mug.: 617 34 99 44  
NARBARTE



➔ **MALERREKA**

# Euskaltzaindiaren jardunaldiak Iturenen Andres Iñigoren omenez

Euskaltzain berriak sarrera hitzaldia eskainiko du maiatzaren 27an

TTIPI-TTAPA

Andres Iñigo ituren-darra euskaltzain oso izendatuko dutela eta, Euskaltzaindiak Iturenen egingen dute hilero-ko lan saioa maiatzaren 26 eta 27an. Gainera, Andres Iñigok sarrera hitzaldia egingen du eta hori aprobetxatuz, ospakizun eta besta tiki bat egingen da Iturenen.

Ortziralean, maiatzak 26, Euskaltzaindiakoak Iturenen bilduko dira eta Herriko Etxean egingen dute beraian lan saioa. Larunbatean egingen du Iñigok sarrera hitzaldia. Hori baino lehen, goizeko 10etan jaldunak eta trikitilariak karriz karriz ibiliko dira, Aurtizetik abiatu eta Iturenera joanen dira. Udaltzatza, Euskaltzaindiak eta euskaltzain berrijoaldun eta txistulariekin batera Herriko Etxera joanen da. 11,30-etan sarrera ekitaldia egingen da Herriko Etxean. Alkatearen ongi etorriaren ondotik Patxi Goenaga Euskaltzaindiako idazkariaren azalpena etorriko da.



**Zaborrak biltzeagatik ordaindu beharrekoa igo egin du Malerrekako Mankomunitateak. Argazkian, Beintza-Labaiengo zabortegia.**

Artxibokoa

Andres Iñigoren sarrera hitzaldiaren ondotik, Andres Urrutia eta Jean Haritxelar euskaltzain burua ariko dira solasean. Euskaltzain berriari domina eta izen-

dapen agiria eman eta gero, *Agur Jaunak* joko dute txistulariek. Iturengo mutil-dantzaren ondotik, herri bazkaria eta dantzaldia egingen da plazan.

Zaborra biltzeko tasa berriak

Malerrekako Mankomunitateak zaborra biltzeagatik sei hilabeteetik kobratzen duen diru-kopurua igo egin du. Zaborrontzitik 200 metro baino guttiagoetara dauden etxebizitza eta baserriek 7.891 pezeta ordaindu beharko dituzte astean hiru bilketarekin diren kasuetan eta 6.068 bi bilketa egingen badira. Komertzioek 15.783 pezeta (3 bilketa) edo 12.121 pezeta ordaindu behar dute (2 bilketa). Autozerbitzuek 23.694 edo 16.733 pezeta; ostatuek 15.783 edo 12.121 pezeta; dantzalekuek 23.694 edo 16.733 pezeta; hamar mahai baino guttiagoko jatetxeek 15.783 edo 12.121 pezeta; hamar mahai baino gehiagoko jatetxeek 23.694 edo 16.733 pezeta; hamar ohatze baino gehiagoko hostal eta hotelek, 15.783 edo 12.121 pezeta; bortz mahai bitarteko ostatu-jatetxeek 15.783 edo 12.121 pezeta eta kanpinek, 23.694 edo 16.733 pta.

▼ **flash**

- ❖ Ezpelura Emakume Elkartek antolatutako bitxiaren zozketako zenbaki sariduna ateratu du. 0017 zenbakiari egokitu zaio urrez eta harribitxiz egindako eraztuna. Txartelaren jabeak erosi zuen dendara joan edo elkartearen kideren bati jakinarazi beharko dio, bitxi ederra eskuratzeko.
- ❖ Udaberriko Bira Donamaria eta Urrotzen Nafarroako Gobernuaren Udaberriko Bira kultur zikloa ailegatu da aurten ere Malerrekara. Iturenen izandako antzerki saioaren ondotik, Donamaria eta Urrotzen txanda izanen da. Donamarian, Tenpinpilinpaua antzerki taldeak «Zapatak hondaturik» antzezlan eskainiko du ekainaren 4an, arratsaldeko 6,30etatik aitzinera. Urrotzen, berriz, ekainaren 24an zinea ikusteko aukera izanen dute. Gaueko 10etatik aitzinera, «El niño león» pelikula eskainiko dute pilotalekuan.



## TOLDOS BAZTAN

Presta zaitez udarako!

- Eguzkitik babesteko toldoak
- Manualak, elektrikoak, urrunetik irekitzekoak
- Kamioiendako gisa guzietako toldoak (irristatzaileak ere)
- Errotulazioa

SALMENTA

ALOKAIRUA

KONPONKETA

**948 63 10 03 • 629 01 59 23**

Baldrun 8, Alkaiaga industrialdea • Lesaka • SARRERA BERAKO ZALAIN AUZOTIK



## AKORDEOIAREN GOI-MAILAKO AKADEMIA

**MENGINI  
AKORDEOIAK** Angel Manuel Belio

AKORDEOI eta TRIKITIXA KLASEAK • MUSIKA LENGUAIA

Kirolaz gain, MUSIKA ere egin ezazu

**DOMIÑENEA Etxea - San Andres Karrika, 40  
NARBARTE • 943 - 61 50 55 •**

 BERTIZARANA

# Aceraliak 500 milioiko inbertsioa egingen omen du Legasako lantegian

Zerbitzu berria eskaintzeko 2.400 metro koadroko nabea eraikiko du

**TTIPI-TTAPA**

Aceraliak zerbitzu berri bat eskainiko du Legasan, pintura lerroaren ondoan, eraiki nahi duen nabe berriaren bitartez. Nabe honek 2.400 metro koadro izanen ditu eta 500 milioi pezetako inbertsioa egingen da. Honela agertu da behinpein komunikabide batzuetan, nahiz eta langileen ustez, diru horrekin ez da gauza haundirik egiten ahal.

Inbertsioa, instalazioen modernizazio plan baten barnean dago. Honela, nabe berriak produzitzen den altzairu banda margotua sektore ezberdinetako (elektrogailuak, altzari metalikoak, eraikuntza, dekorazioa...) piezak osatzeko prest izanen da. Sektore hauek gero eta gehiago erabiltzen dute altzairu banda eta, Aceraliaren ustez, zerbitzua hobetzeaz gain, balio erantsia ematen zaio produkzioari eta bezeroekin duen harremana sendotu egiten du.

Orain egingen den inbertsio honekin, joan den urtean galbanizatu eta pintura lerroen kalitatea hobetzeko eta gaitasuna handitzeko egindakoa osatuko da. Orduan, 3.000 milioi pezetako inbertsioa egingen da. Pintura lerroak urteko 30.000 Tonatan handitu zuten bere produkzio ahalmena eta prozesuaren kalitatea hobetu zuten. Horren ondorioz, produkzioa hobetzea espero dute aurrerantzean.

## ZE G K H LIK ET GEHIEN INTZE I E N

nts l n k

**GUn**  
**ENTSI**  
**L N**

Err nt Fnk  
luz r zkn ll  
urt t n  
t z st k  
m nt l e t n  
Es n k r nkn k  
l h nt k t n n  
fn ntz r uktu  
k n . /12/31k  
Inv re -r n tu k.


**G s**  
**ENTSI**  
**L N**

Err nt l krr n  
h n z r s k  
n nts m st . E  
luz r Err nt Fnk  
t l krr n  
re k r k l t z n  
ue n ntz t.

**GTr s**  
**ENTSI**  
**L N**

t t Err nt  
l krr n  
n rt z n  
h n z r  
75 r kn.F luz r  
r nt l e h n  
n h ut n  
n rts r ntz L.

Inf r m z h n h uzu hur l  
z t z zur ur l Krtx k ul r



**NAFARROAKO  
RUR L KUTXA**

➔ GOIZUETA

# Telleriko kanpina ireki dute berriz

## Presoen aldeko mobilizazioek segitzen dute

**ESTEBAN AROTZENA**

Nafarroako Gobernuaren aginduz hilabete batzutan itxita egon ondoren, Telleriko kanpina jendez gainezka dago, joan den Aste Santuaz geroztik berriz ere irekiak baitauzka bere ateak. Nafarroako Turismo Departamenduak eta kanpineko jabe eta akanpatuen arteko akordioaren ondorioz etorri da irekitze hau.

Berria arront ongi hartuko zuten herriko merkatariek ere. Kontutan izan behar da ehundaka lagun direla asteburuetan Tellerin elkartzen direnak. Asko

dira urtearen zati handi batean bertan bizi direnak ere.

Aterpetik plazara

Presoak Euskal Herriratzearen aldeko eskaera begien aurrean jarri zaie goizuetar guziei, oraintsu arte Guraso Elkartearen egoitzan egiten diren baraualdiak herriko plazaren erdian egiten baitira apirilaren 6az geroztik. Egun horretan 21 lagun elkartu ziren 24 ordu iraun zuen kanpaldi batean, eta hurrengo hilabetetan ere horrelaxe jarraitzeko asmotan dira. Azken aste hauetan manifestazioak ere ugaritu egin dira



Plazan akanpada egin zen presoak Euskal Herriratzearen alde.

herrian, Jokin Solanoren atxiloketari nola edo hala erantzun izan nahi baitiote goizuetar askok. Udalak ere atxiloketaren aurkako mozioa onartu zuen ahobatez, atxiloketa gertatu eta biharamonean.

Bertso-paper txapelketa  
Nafarroako Eskolar-

teko XIV. Bertso paper lehiaketaren sari banaketa egin zen maiatzaren 4an Berriozarren eta Xalto eskolako bi ikasle sarituak suertatu dira. Lehez Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoei zuzendutako lehiaketan Juan Loiarstek jaso zuen lehen saria eta DBHko 1. eta 2. mailakoetan, Naiara Arozenak.

Umore Onako mus txapelketa

Berri zahar xamarra izan arren, aipatu beharrekoa da Miel Salaberriak eta Joakin Solano «Txurri»k irabazi zutela Umore Onaren aurtengo mus txapelketa. Miren Uitziz eta Rosa Mari Olaizolaren kontra jokatu zuten finala.

➔ ARESO

# Santa Kruz baselizako erromeria ospatu zen maiatzaren lehen igandean

## Eskolako lanen aurrekontua ia 9 milioikoa da

**JUANA MARI SAIZAR**

Maiatzaren lehenengo igandean, eguraldiak lagunduta, Santa Kruz baselizako erromeria ospatu zen. Gurutz-bidea egin zen eta, ondoren, meza. Ibilaldiari aurre egiteko, gazta, ogia eta ardoa eskaini zitzaizen meza ondoren han bildutako.

Eskolan lanak egiteko 9 milioiko aurrekontua

Eskolan lan batzuk egiteko proiektua, beheko gelaren hezetasuna kentzeko, kanpoko paretaren saneamendua egiteko eta patioa ixteko, Hezkuntza Departamenduari bidali dio Udalak, dirulaguntza lortu ahal izateko.

8.900.000 pezetako aurrekontua du proiektuak, baina Iruñetik etortzen den diru kopurua ikusi egin beharko da.

Herriko lanak

Nafarroako Gobernu Lan Departamendutik, milioi bat pezetako dirulaguntza hartu da obrak egiteko, baina beti lagabezia dago-



Gurutz-bidea egin zen baselizaraino.

en jendearekin egin behar dira lanak.

Udaberriko Bira

Udaberriko Bira kultur ekitaldien barne, maiatzaren 21ean, goi-

zako 11,45etan Aizaga Ganbara Korala izango da elizan. Hauek, musika korala egiten dute eta azken urte hauetan hainbat sari lortu dituzte.



LEITZA

# XXII. Kultur Astea maiatzaren 19tik 28ra egingen da

## Mikel Urdangarinen kontzertu batekin hasiko da ostiralean

JOSEBA AZPIROZ

Herriko kultur taldeak hogeita bigarren urtez antolatutako Kultur Astea maiatzaren 19tik 28ra ospatu-ko da aurten.

Ostiralean, maiatzak 19, Mikel Urdangarinek eskainitako kontzertua aditzeko aukera izanen da zineman. Biharamonean, goizeko 10etan, umeentzako mendi-irteera bizikletaz antolatu du Mendibil taldeak. Arratsaldeko 6etan, berriz, Aralar musika eskolako ikasleen kontzertua izanen da.

Maiatzaren 21ean, igandearekin, Herri Eguna ospatuko da. Goizeko 10.30etan txalaparta soinuak adituko dira txokoetan. 11.30etan kalejira izanen da herrian barrena: Ituren- go zantantzarrak, erraldoiak, dultzaineroak, pilotariak, Asketa, Asketa Ttiki, Musika eskola, Aurrerako dantzariak

eta txistulariak izanen dira kalejiran. Letan plazan jaialdia egingen da plazan, kantari, musikari eta dantzariekin. Pilota partidua ere jokatuko da. 2.30etan karrapen bazkaria izanen da eta ondoren, dantzak eta kantak.

Maiatzaren 22an, arratseko 8etan piano kontzertua eskainiko dute zineman Ainara Roda, Silbia Sukuntza, Begoña Martinez eta Karolina Banch-ek.

Maiatzaren 23an, ordu eta leku berean, Mendibil mendi taldeko Andoni Areizagak mendiko diapositibak erakutsiko ditu.

Maiatzaren 24an, «Euskaldunak Afrikan» izeneko bideo emanaldia eskainiko dute, hau ere 8etan zineman.

Maiatzaren 26an, ostirala, arratsaldeko 3.30etan, Txan magoak izanen da plazan. Gaueko 10.30etan, berriz, Lakikrun taldearen



Sarriopapeleko LAB Aldi Baterako Lan Enpresen bidez egindako kontratuen aurka azaldu dira

Sarriopapel enpresako LABeko ordezkari sindikalek lantoki honetako zuzendaritzak ETT delakoen bidez egiten dituen kontratazioen aurka azaldu dira. Aipatutako sindikalistek diotenez urtero 300 lan kontratutik gora egiten dituzte, gehienak hilabete batekoak eta gainerantzeko langileek baino lan baldintza eta soldata okerragoekin. Ehun mila Tonako produkzioa duen enpresa batek lan-produkzioan aritzeko hartu beharreko langileei horrelako kontratuak egitea onartezina dela adierazi du aipatutako sindikatuak.

«Zereko zera zertzen delako, zereko zerearekin» antzezlanak ikusgai izanen da zineman.

Maiatzaren 27an, umeentzat jostaketak izanen dira plazan goizeko 10etan eta gaueko 9.30etan, helduxeagoentzat, Aurrerak antolatutako bertso-aparia sagardotegian.

Azkenik, urtero bitzala, Kultur Asteari bukaera emateko, hogeigarren esku langileen erakusketa ikusgai izanen da igandean, goi-

zako 10.30etatik aurre-  
ra plazan.

1.743 ikusle izan  
ditu aurten  
zinemak

Apirilaren 22an bukatu zen zinema denboraldia. Denboraldi honetan, eta larriei eskainitako emanaldiei dagokionez, 1.743 sarriera saldu dira. Haue-  
tatik, 1.206 ikusle ostiraletako emanaldietara joan dira eta 537 larunbatetan. Emanaldi bakoitzeko banaz besteko

ikusle kopurua 42 lagunena izan da. Ostiral bakoitzeko banaz bestekoa 57 atera da eta larunbat bakoitzeko 26. «La vida es bella» pelikula izan da jende gehien erakarri duena (143 lagun bi emanalditan). Haur eta gazte-  
txoei berriz, hiru pelikula eskaini zitzaizkien Eguberrietan eta 212 lagunek ikusi zituzten.

2.045 ibilgailu daude herrian

19,7 milioi pezeta jasoko ditu aurten Udalak, Ibilgailuen gaineko udal zergarengatik. Denetara, 2.045 ibilgailu daude herrian zentsatuak, honela banatuak:

- Ziklomotore eta motozikleta, 80.
- Zerbitzu publikoa, 9.
- Turismoa, 1.546
- Traktorea, 65
- Nekazal tresneria, 77
- Ezinduen ibilgailuak, 10
- Kamioia, 211
- Atoaia (erremolkea), 47.

**ANTOJOS**  
boutique pre-mama

Arbelaiz Jauregia  
Iglesia karrika 8  
(Nafarroako Ibilbidearekin eskin egiten)  
Tel.-Fax: 943 63 41 70 • IRUN

**GAZTELU ITURGINTZA**  
**KALEFAKZIOA**  
Elgoien 32 • Tfnoa: 948 510 086 • LEITZA

**ttipi-ttapa** Udal  
Publizitatea  
7.100 harpidedun ttipi-ttapan  
24.000 irakurle zergatik ez?


BAZTAN

# Xabier Lertxundi zenari omena eskainiko zaio maiatzaren 28an

Mendiko istripu baten ondorioz hil zen martxoaren 15ean

TTIPI-TTAPA

Baztango Mendigoizaleek, Baztandarren Biltzarrak eta Baztango EHk omenaldia eskainiko dio maiatzaren 28an Xabier Lertxundi Eizagirre, Pirinotan izandako mendi istripu baten ondorioz martxoaren 15ean Zaragozako ospitalean hil zen Irurritako mendigoizaleari.



**Xabier Lertxundi mendi istripuan hil zen.**

Omenaldiaren egitaraua guziz finkatu gabe badago ere, goizeko 8etan Izpegi-Auzamendi ateraldia egingen da. Horretarako, goizeko 8etan Izpegiko gainan elkartuko dira, Auzako kaskoan zenbait ekitaldi burutuko direlarik.


Eguerdiko 2ak aldera, Baztandarren Biltzarraren egoitzaren inguruko zelaian, Merkatu Plazan, zuhaitz landaketa egingen da Xabierren omenez.

2,30etan berriaz, bazkari herrikoia izanen da Baztandarren Biltzarrako arkupetan. Bazkariarako txartelak Intza ostatuan jarriko dira salgai. Xabier Lertxundi aski mutil ezaguna zen

eskualde osoan eta Baztango Mendigoizaleak, Baztandarren Biltzarra eta EHko kide zen.

Larunbat arratsetarako autobusa

Elizondoko ostatuak herriz herri doaien autobusa paratu dute larunbat arratsetan. Alde batetik, alkoholemia kontrolak saihesten dira horrela eta, bertzetik, bezeroen segurtasunari ere begiratzen diote. Goizaldeko 4,30etan abiatzen da Elizondoko Foruen Plazatik eta herriz herriko itzulia egingen du. Gazteek ongi hartu dute ekimen berri hau.



## Baztango Gastronomía landu dute Ikastolaren Kultur Astean

Baztan Ikastolak urtero bezala Kultur Astea burutu du. Aurtengo gaia Baztango Gastronomía izanik, guraso eta ikasleendako hainbat ekintza antolatu ziren gai honen inguruan. Aste honen helburu bat betiko Baztango jakiak berreskuratzea eta zabaltzea izan da. Hau egiteko, bildu dituzten errezetekin liburuxka argitaratuko dute. Baztango sukaldaritzari buruzko ikastaroa egin zen Pello Garmendia sukaldariarekin. Parte hartu zuten gurasoek, sukaldaritzak ikasteaz gain arras ongi pasatu zuten. Umeak ere sukaldari bihurtu ziren, taloak prestatu eta dastatzeko aukera izan baitzuten.



## Irurritako Sonia Navascues Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasle onenen artean

Irurritako Sonia Navascuesek Nafarroako Unibertsitate Publikoko Haur Hezkuntza ikasketak burutu ditu eta ikasturte akabailako bigarren espediente onena aurketu du. Honela, Nafarroako Kutxa erakundeak emandako titularen eta 100.000

pezeten jabe egin da. Soniaren ustez, hain espediente ona aurkezteko ez dago sekreturik: «Ongi antolatu behar duzu, baina bada denbora denerako, ikasteko, lan egiteko, parranda egiteko...». 22 urte ditu Soniak eta dagoeneko lanean hasia da Mendillorriko haurtzaindegi batean. «Hamabortz ume ditut, hamar hilabetetik urte terdi bitartekoak. Lana uste dena baino gogorragoa da, baina nik arras gustokoa dut».

*Eskisaroi jatetxea*  
Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013  
ELIZONDO

**Gierresenen**  
OSTATU - JATETXEA  
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa  
Iturriotz Auzoa • ☎ 592043 • OROÑOZ-MUGAIRI

ARROPA DENDA  
**FANTXIKE**  
JAIKARRETA, 29  
IFNO, 044312  
ELIZONDO  
Gazteendako era guzietako arropa  
Lanerako arropa

## EGITARAUA

### Asteazkena 31 Bezpera

**12etan** altxaferua, trikitalariak karriketan eta ezkil-jotzea. **8,30etan** ezkil-jotzea. **9,30etan** baztan zopak. **Gauetz** mozorro dantzaldia EKLIPSE taldearekin. Saria izanen da.

### Ortzegune 1


#### Salbatore Egune

**10etan** argi soinuak trikitalariekin. **11etan** Meza Nagusia, herriko koroak abesturik. **12etan** herriko dantzariak. **1etan** hameketakoa. **4etan** Bagordin plater tiraketa. **6etan** herri kirolak. Arratsalde eta gauetz dantzaldia IRATXO taldearekin. **10etan** mutildantzak.



1950. urteko dantzariak: Goitian, Ignacio. Bigarren lerroan, M<sup>a</sup> Angeles, Milagros, Juanita, M<sup>a</sup> Puy eta Tomas. Hirugarren lerroan, Ramonita, Tiburcio, Manchiquita, Carmen, Raimundo, Mertxe, M<sup>a</sup> Dolores eta Antonio. Beheitan, Fermin, M<sup>a</sup> Teresa, M<sup>a</sup> Jesus, Rosarito eta Antonio. Bazterreko haurrak, Juanito eta Miguel Angel.

## BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia



- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak.
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 948 45 23 74 • IRURITA



## Ortzileria 2

### Haur eta Jubilatuen Egune

**10etan** argi soinuak TXORONGO txaranga eta trikitilariekin. **11etatik 1etara** Haurrendako Jokoak. **2etan** Oilo Jatea haurrendako, bazkaria Olarin jubilatuekiko eta Baigorri gazteendako. **3,30etan** Haurrendako jokoak. **5,30etan** txaranga herriko karriketan eta txokolate jatea. **10etan** mutil-dantzak. Arratsalde eta gauz dantzaldia INDIANA taldearekin.

## Larunbata 3

**11,30etan** TXORONGO txaranga karrikaz karrika. **2etan** herri bazkaria txarangarekin. **7etan** emaz-

teki V. Aranabia palea txapelketaren finala. Arratsalde eta gauz dantzaldia eta gaupasa SUAN BLAI taldearekin. **10etan** mutil-dantzak.

## Igendia 4

**11etan** Meza Nagusia. **11,45etan** txaranga eta plazan kontzertua. **6etan** IKUSGARRI taldearen esku motozerraz zurezko irudigintzaren erakustaldia. **8,30etatik 10etara** dantzaldia DRINDOTS taldearekin eta besten akabaila.



1952. urtean dantzaldia plazan. M<sup>a</sup> Angeles Azkarate, Julian Garcia, M<sup>a</sup> Angeles Oteiza eta Mertxe Martin. Ondoan duten neska Mertxe Frantzesena da. Hauek ez zuten dantzatzeko gogo handirik, bistan denez.

## RIPA harategia

*Ongi pasa  
Salbatoreak!*

☎ 948 452073  
Karrika Nagusia  
IRURITA

## J.P. AGERREBERE

AROSATEGI METALIKOA



BANATZAILEA



Zaldubia • ☎ 948 580538 • IRURITA

## JOAKIN harategia

*Besta onak pasa!*

☎ 948 581077 • Agerrebere • IRURITA

## BAZTAN MOTOR, S.L.

*Mekanika, elektrizitatea, txapa eta pintura  
Auto berri eta erabilien salmenta*



Zaldubia • IRURITA

Tel. eta Faxe: 948 452 119

## ARKUPE GOZOTEGIA

IRURITA ☎ 948 452021

ELIZONDO ☎ 948452393

Tarta bereziak eta Etxeko izozkiak

## PELUKERIA

☎ 948 580618  
Pedro M<sup>a</sup> Hualde  
IRURITA



## OLARI

Jatetxea



Tfnoa: 948 45 22 54

IRURITA

\* Jatetxea haize egokituarekin hornitua

## SUMINISTROS YANCI



- ITURGINTZA INSTALAZIOAK
- GAS ETA GASOIL BEROGAILUAK
- ERREGAILUEN MOLDAKETA ETA MANTENIMENDUA

Santiago, 82 - ELIZONDO - IRURITA  
Tel.: 948 45 24 64 • 948 58 01 09

## EGITARAUA

### Asteazkena 31

Salbatore Bezpera

**Arratsaldeko 8etan:** Altzaferrua. **10etan** afarria eta dantzaldia MODESTOrekin.

### Ortzeguna 1


Salbatore Eguna/Haurren Eguna

**11etan** Meza Nagusia eta ondotik zintzur bustitzea Sarako gaiteroekin eta Atsulaiko dantzariekin. **4etatik 7,30etara** haurrendako jokuak. **5etan** Xareta esku pilota txapelketaren finala, Urdazubi eta Sarako ume eta haurren artean. Ondotik, Zazpiak Bat Sarako dantzariak. **Arratsalde** eta **gauetz** dantzaldia KIÑU taldearekin. **10etan** afarria frontoian.

### Ortziralea 2

Emakume Eguna

**2etan** Ugarana andre elkarteak antolatutako bazkari herrikoia. **3etan** soinualdi alegerak Dantxarinerekin. **6etan** kafe antzerkia. **10etan** kontzertua: INGUMA, PIARRES, EQUUS eta BAMBINO DJ.



### Larunbata 3

Zikiro Eguna

**11etan** arrantza lehiaketa. **2etan** zikiro-jatea Zizkuitz txarangarekin. Goiz-arratsaldez haurrendako jokuak. Arratsaldez eta gauetz JATOR taldea.

### Igandea 16

**11,30etan** Plater tiraketa. **6etan** gauazkolarien bideetan lasterketa. **6etan** Xareta txapelketaren finala (Sara eta Urdazubiko gazteak). Ondotik dantzaldia KIKI BORDATXOrekin.

**Pilota partidako protagonistak:** Bautista Ariztia, Agapito Verdu, Graxien Agerre eta Albert Agerre.

ARGAZKIAK: INDIANO-BAITAN UTZIAK

Kategoria bereziko hostala

IRIGOLENEA

Tel.: 948 59 92 67 • Faxa: 948 59 92 43

URDAZUBI

Benta - Jatetxea - Souvenirs - Janaridenda



DANTXARINEA - faxa 948 599216 - ☎ 948 599106

PEIO BENTA

Besta ederrak pasatu!

Ostatua Autozerbitzua Jatetxea

DANTXARINEA•URDAZUBI

LAPITXURI

Ostatu - jatetxea • Diskoteka

Ongi pasa herriko bestak!

Dantxarinea • URDAZUBI

PEPITA OSTATUA

Janari Denda

Tfnoa: 948 59 90 27 - URDAZUBI

M<sup>a</sup> Cruz Plaza  
Harategia

Tfnoa: 948 599008 - URDAZUBI

Jantzeria Baita

Jatetxea - Hostala

Ongi pasa herriko bestak

Tfnoa: 948 59 90 21 - URDAZUBI

OLAZELAI

Ostatua Autozerbitzua Zeramika

☎ 948 599051

DANTXARINEA URDAZUBI

Rosa Mentaberri  
Ileapaindegia

☎ 948 59 91 29 - DANTXARINEA • URDAZUBI

SANTIAGO VILLARES  
GARRAIOAK

- Luzerna
- Agotza eta lastoa
- Luzerna - pentsu granulatuen SALMENTA eta EXPORTAZIOA

☎ 948 59 91 34

URDAZUBI



Eskolako mutikoen artean honako hauek ezagutu ditugu. 1. lerroan: Periko Tomasena, Narciso Mihura, Bixente Agirre, Jose Tomasena, Emile Ithurria eta Clemente Suhas. Bigarren lerroan, Joaquin Etchart, Juanito Agirre, Eufrasio Tomasena, Juanito «Dutari», Ethienne Ithurria. Hirugarren lerroan, Felix Arotzarena, Periko Etxeberria. Jarrita: Tomas Fagoaga, Jose Arotzarena, Miguel Urrutia, Jose Urrutia, Antonio Organbide eta Jose Fidel Etchart. Zuetako aunitzek bertze batzuk ere ezagutuko dituzue, segur!.

**INDIANOA-BAITAK UTZITAKO ARGAZKIAK**

**Faustino ETXABE Tailerrak**  
 Autoen konponketa  
*Besta on batzuk pasa!*  
 ☎ 948 599038 • ZUGARRAMURDI

**Panta Benta**  
 Tabakodenda • Ostata • Janaridenda  
 ☎ 948 599012 • DANTXARINEA

**MIKELEN BORDA**  
 Jatetxea  
 Ostata  
 Autozerbitzua  
 Tfnoa: 948 599045  
 DANTXARINEA  
 URDAZUBI

**IRIARTEA BENTA**  
*Chez Peyo*  
 Ostata - Autozerbitzua - Larrua...  
 Tfnoa: 948 599049 - DANTXARINEA • URDAZUBI

  
 ☎ 948 599 222 • URDAZUBI  
**IKABURUA Ostatu-jatetxe-erretegia**  
 ☞ *Lehengo moduko janlekua.*  
 ☞ *Etxeko janaria.*  
 ☞ *Kanpoan jokuak haurrentzat.*

**ZUBIONDOA**  
 Ostatu - Autozerbitzua  
 Larrua (txaketak, boltsoak...)  
 ☎ 948 59 90 41 - DANTXARINEA • URDAZUBI

**ARRETXEIA BENTA**  
 • Autozerbitzua • Zeramika •  
 • Larrua • Tabakoa •  
 ☎ 948 599015 - DANTXARINEA • URDAZUBI

**MENTA Jatetxea**  
 Xaretako lurraldean  
 ☎ 948 59 90 20  
 DANTXARINEA  
 URDAZUBI

**ARMUA Jatetxea**  
  
 Zugarramurdiko karreteran, 3. km  
 ☎ 948 59 91 31 - URDAZUBI

**ETXELEKUA GASNATEGIA**  
 ARDI eta BEHI GASNA  
 ETXEKO GAZTANBERA eta ZENBERENA  
 Zugarramurdiko karretera, ☎ 948 599169 URDAZUBI



➔ BAZTAN

# Baztango VII. Mendi Ibilaldia egingen da igande honetan Belate inguruan

Berroetatik abiatu eta Berroetara ailegatuko da, 32 kilometro egin ondotik

TTIPI-TTAPA


Baztango Mendigoizaleek zazpigarren urtez segidan antolatu duten Baztango Mendi Ibilaldia igande honetan, maiatzak 21, egingen da. Aurtengoan, Belate inguruak ezagutzeko aukera eman nahi dute eta honela, Berroetatik abiatu eta, 32 kilometro egin ondotik, Berroetan bertan akituko den ibilaldia prestatu dute. Zazirik gogorrena lehendabizikoa izanen da, Berroetatik abiatu (370 metro) eta Abartan (1.095), Olari (1.100), Saioa (1.425) eta Okolin (1.353) igan beharko baitituzte, lehen hameka kilometrotan. Hortik ibilaldi akabaila arte gehien bat beheti egingen du bideak, Belate (845 metro), Gaztelue (945), Mendiola (540), Ubon (235), Zozaia (395) eta erro tartik (225) pasatuz, Berroetara ailegatuko dira partehartzailak.

Ibilaldian parte hartzeko 700 pezeta ordaindu beharko dira eta lehendabiziko taldea



Elizondarren omenaldia jaso du Juanito Erasok Elizondoko abesbatza sortu eta urte auzitan zuzendu egin zuen Juanito Eraso Olaetxeak elizondarren esker ona jaso zuen maiatzaren 2an egindako omenaldi kontzertuan. Oreretan izan zituen ikasle batzuk antolatu zuten omenaldia eta Baztan Balleko Udalaren laguntza izan zuen Santiago elizan egindako ekitaldiak. Baztango alkateak balleko harmarria duen koadroa oparitu zion 86 urteko musikariari. Maiatzaren 4an bertze omenaldi bat eskaini zitzaion Oreretan.

goizeko 7etan izanen da. Argibide gehiagorako eta izen-emateko Baztango kirol teknikariari deitu behar zaio (948 581279), goizeko 7,30etatik arratsaldeko 3etara edo ordutegi horretatik kanpo mezua utzi erantzungailuan.



▼ flash

- ❖ Arizmendiren margo erakusketa  
Kepa Arizmendi Bereau margolariaren lanak ikusgai daude maiatzaren 12tik 30era Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean zabaldu den erakusketan.
- ❖ Jauregiren margo erakusketa  
Zarauzko Arantxa Jauregiren akuarelak ikusgai izanen dira Mauricio Berekoe-txea etorbideko 2. zenbakiko erakustokian (eliza ondoan) maiatzaren 28a arte. Astegunez 6etatik 9etara eta besta egunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 9etara.
- ❖ Erregiñe eta sahatza  
Arraiozen 60 urtez galdua egon ondotik, azken hiru urteetan berreskuratu egin da Arraiozen Erregiñe eta sahatza dantzatzeko ohitura. Beti bezala, maiatzeko hondar igandean egingen da, maiatzaren 28an.
- ❖ Baztango Antzerki taldea  
Baztango antzerki taldeak deia luzatu die antzerkian interesatuen dauden guzietan izena emateko. Edozein herri eta adineko pertsonentzat zabalik dago taldea. Izena emateko 629918198 telefonora deitu.

**ORDOKI** *likoreak*

Tel.: 948453410  
Fax: 948453378  
**ARIZKUN**

**ERRETEGIA**  
Parrilan egindako haragi eta arrainak

**IPINGI** ZATOZ ETA IKUSI  
Santiago 88, ☎ 948 580939  
ELIZONDO

**UDAKO ARROPA**  
URTE HONETAKO MODA BERRIA  
**BAINU JANTZIAK, SOINAK,  
KONJUNTOAK, GONAK...  
ETA KONPLEMENTOAK**

SENPERE

# Urtero bezala milaka euskaltzalek ospatu dute Herri Urrats

## Euskal departamenduaren aldeko besta ekainaren 3an

MARGARI ETA KORO

Gan den igandean, Herri Urrats Iparraldeko ikastolen bestan euskararen ofizialtasuna aldarrikatu da aldi batez gehiago, Seaskak 30 urte betetzen dituelarik. Urtero bezala milaka eta milaka euskaltzale bildu ziren Senpereko aintzira inguruan, aldarrikapen hori besta giroan egiteko.

Euskal departamenduaren aldeko besta ekainaren 3an

Euskal departamenduaren aldeko besta haundia ospatuko da ekainaren 3an Senta Gabela herrixkan, Tolosa ondoan, «Urriaren 9ko deiak» taldeak antolaturik. besta egun hau han egin nahi da, Lionel Jospin frantses lehen ministroaren herria baita.

Harek 1995an Ziburun hitz eman zuen departamendu berria sortuko zela hautetsi gehienak horren alde balira. «Urriaren 9ko deiak» orotarazi nahi du baldintza guziak bete direla, hemengo auzapez eta herritar ge-



Borthaire Saria jokatu dute aurten ere errugbilariek Borthaire saria aurten ere arrakasta handiz iragan zen. Argazkietan Senpereko ekipoa eta sari ematea ikusten ahal ditugu.

Studio de la Nivelle



Bertze urte batez gainezka egin du aintzira inguruak herri Urrats kari.

hienak egitura berria nahi baitute orain. Senta Gabelan eginen den bestarat gateko, autobusak izanen dira. Zuen tokiak atxiki lehenbailehen.

Euskararentzat diru laguntza gutiegi

Euskararentzat diru laguntza publiko gutiegi dela salatzeke 40 talde euskaltzale biltzen dituen Euskal Konfede-

razioak «Deiadar» leloarekin manifestaldi batetarat deitzen du ekainaren 10ean Baionan. Salatu nahi da hautetsiek guti ematen dutela euskararen alde eta hitza ez dela atxiki martxoan Akitaniako plan kontratua sinatu zelarik, uste eta pentsatu baino aintzitu gutiago eman baita gure mintzairarentzat.

### flash

- ◆ Konfirmazio eta komunioea eta kermeza Aurtengo konfirmazioa Azkaineko elizan iraganen da maiatzaren 20an, larunbatarekin. arratsaldeko 7etan. 28an, berri, goizeko 10,30etan Senperen lehen jaun hartze edo komunioea izanen da eta bigarrena ere-aroaren 4an. Kermeza ere-aroaren 18an egitekoa da, azkenik.
- ◆ Aste komertziala Aste komertziala maiatzaren 22tik goiti ospatu behar zen bainan animazio frango baita aurten, herriko saltzaileen batasunak besta gibelatzea pentsatu du.

Kutxa Kutxa Kutxa  
Kutxa Kutxa Kutxa Kutxa

**Kutxa** *Kidetzat berri bat!*  
7, Portuko Karrika-64700 Hendaia  
Tel. 0559203274 Fax 0559203237

**RESTAURANT MIGUEL**

**Ongi zaindutako sukaldaritza**  
**Menuak aukeran**

**MIGUEL JATETXEA**  
Ibardingoa Lepoa  
☎ 948 631209

# Laguntzailea atxeman du Sara Korrikak

## Beti Gazte elkarteak, berriz, bulego berria izanen du

ANA MARI ETA FRED

Apirilaren 30ean, Sara Korrika elkarteko lagunak bildu ziren aperi-tifa baten inguruan. Lasterkariak laguntzailea atxeman dute, Donibane Bereciartua lantegiak eskaini baitizkio-te bai galtza motzak bai-ta larrosekoak ere. Hamabi lasterkari ibiltzen dira. Saratik hamar lagun, Alain Arruferia, Jakes Bernet, Claude eta Christian Etxegarai, Pantxo Ibarra, Daniel Iramuno, Ramuntxo Lamothe, Mixel Larzabal, Jean Michel Mendi eta Beñat Saint Martin; Itxasutik Philippe Jaurerxe eta Luhusoatik Alain Agerre.

Korrikalariak Bidarten, Arrangoitzen, Hiri-burur eta Bidarraien antolatua izan diren lasterketetan parte hartu dute. Azkena, maiatzaren 7an Bidarraien egin zuten: 58 lasterkarietatik herriko Mixel Larzabalek hirugarren postua lortu zuen, Ramuntxo Lamothe 9., Claude Etxegarai 17., Beñat Saint Martinek 20. eta Alain Agerrek 25.

Mixel Larzabal elkarteko lehendakariak oroitarazten du edozeinek parte hartzen ahal duela, bai neska bai mutil, baldin bakarrik medikuaren baimena izatearazta baita. Ondoko hitz ordua, ekainaren 4ean, igandearekin dute.

Urdazubiko besta kari, zazpi kilometroko lasterketa antolatu da lehen aldikotz.

Bulego berria Beti Gazte elkarteak

Beti Gazte elkarteak bulego aldaketa egin du joan den apirilaren 19ko bilkuran. Jeannot Eliza-goienek eta Anita Suhitek lehendakari eta idazkari bezala segitzen baldin badute ere, Pierrette Borain sorketariak bere lekua Yvonne Aspiroti utzi dio, azken hunek Marguerite Elor-ga izanen duelarik ordezkari gisa. Gaur egun elkarteak 108 lagun biltzen ditu.

Bertzalde, joan den maiatzaren 3an, 65 presuna bildu ziren Borda senar-emazteek prestatu krakadaren dastatzeko, eta beti gazteak dirrela frogatzeko, elkarte kideek zikiro jatea izanen dute Errotaxaharreko Bordan, heldu den erearoren 23an, ortziralarekin. Jakinarazten daukute bakarrik oturuntzaren erdia pagatu beharko dela, bertze erdia elkartearen kutxak bere gain hartuko baitu! Izena emateko has-tapenean aipatu presu-neri deitu behar da.

Sarako Izarra Errugbi

Urtero bezala, ipar Euskal Herriko errugbi eskola guziak bildu ziren maiatzaren lehene-



Christian Etxegarai eta Dominique Albistur, Donibane Bereciartua enpresako zuzendariak (zutik, eskuinetik hasita lehen eta bigarrenak-Sara Korrika elkarteko korrikalariekin batera.

an. Aurten Urruñan zuten hitz ordua egun haundi hau ospatzeko. Saratik gazte frango joan ziren eta emaitza onekin sartu ziren etxera! Final laurdenetan galdu zuten gazteenek (zortzi urte azpitik); xitoak mailan (hamar urte azpitik) finala irabazi eta txapel-dun ateri!; benjamin mailan (hamabi urte azpitik) finala galdu zuten eta zaharrenek (hamalau urte azpitik) ez ziren sailkatuak izan finalentzat.

Bertze adin bateko jokalariek ekainaren 4an, igandearekin, elkartu behar dira herriko zelaietan. Usaia duten bezala, lehengo eta oraingo errugbilariak

partida bat jokatu du-te goizean eta ondotik zikiro jatea izanen du-te. Egun hortan parte hartzeko lehenbailehen izena eman behar zaie elkarteko arduradunei.


Larrunerat ateraldia presuen alde

